

TOKIKOM

2022ko otsaila | 222. zenbakia

ai kor!

txorierriko aldizkari

Teresa Arbeloa
Kimikaria

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  **4** Iritziak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **12** Gurean izan da... Jokin Altuna, pilotaria
-  **14** Gaztea eta... Alaia Gomez, arkitektogaia
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz
-  **20** Teresa Arbeloa, kimikaria
-  **24** Marikobaso Espazioa
-  **26** Martxoak 8, Txorierrin
-  **27** Txorierriko Itaia
-  **28** Osasuna... Lehen arreata
-  **30** Gure Dona? egitasmoa
-  **32** Emaus... Urtebete Txorierrin
-  **33** Herbarioa... Salbia
-  **34** Teknologia... Bihotza
-  **35** Aikorrizketa... Mendiak salgai Txorierrin
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Jokin Altuna, pilotaria



26 Martxoak 8



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)

944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Aitor Coteron, Iñaki Eguskizaga, Fernando Olabarrieta,
Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Xabier Diaz, Guiomar Gordon,
Joanes Camara eta Txiribita

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Hamaikatxu ikusteko

Aspaldi honetan, 10 urteko lana eta ikasketea behar ez dauazan medikuntza gradua kalean oparitzen dabela emoten dau. Itzela da ikus-tea danok bilakatu garela mediku, erizain, neurologo, otorrinolaringologo, sendabelarretan aditu edota txaman.

Lehengo egunean, ditzosozko txer-toa jartzera joan nintzanean, ez dakit jentearen berbaldiak entzute hutsak lasaitu ninduan, beldurtu, edo Martera joateko gogoa ekarri eustan. Dagoaneko, jentek badaki txerto bakotxaren konposaketea eta osteko ondorio guztiak bere oso ondo ezagutzen dabez. Hori gitxi izango balitz, gidatzeko bahimenak baino ilusio handiagoa sortzen deutse COVID agiria euren izenagaz, polit-polit eta txukun-txukun, eskuartean izateak. Benetan, burutik jota dago gure gizartea.

Jaun-andreak, ni ez naz inoren bizitzan sartuko, baina, mesedez, nahiz eta botere

handienetarako arkumeak eta astoak izan, ez daigun horren argi itxi. Eretxi asko entzun dodaz COVIDaren inguruan eta danek daukate nire errespetu handia eta sakona, baina gertuko mediku zein osasun profesionalek zehatz-mehatz COVID delakoa zer dan ez badakite, isilik egotea da onena. Danok daukagu ezjakinak sortzen dauan bildurra, danok daukaguz ezjakin horretan oinarritzen diran eretxiak eta danak dira errespetagarriak baina arrantzaka hasi aurretik, pertsona helduen moduan pentsatu, arrazoitu eta, os-tean, behar bada, egin.

Gauza asko entzun doguz gai honen inguruan aspaldiko hilabeteetan, eta, oraindik, beste gauza asko ikusiko doguz. Gai honek bestelako ondorio txar asko izan ditu gure bizitza pribatuan, gure kaleko harremanetan eta gure ingurutik harago doazen arloetan; esate baterako, gobernu eta politika internazionalan.



AITOR COTERÓN

Ikus-entzunezko ekoizle ekintzailea

Ez dakigunari buruz berba lar egin barik, saiek egiten dabene moduen, zerutik behera begiratzen badogu, hobeto. COVIDak eragin asko izan ditu eta danek ez daukate osasunarekin harreman zuzena. Horixe da egin beharreko hausnarketea. Lehenengoa osasuna da, noski, baina zelan "antolatu" dabe gure etorkizuna? Gaurko eguna dagoeneko bukatu da, baina biharkoa eta etziko hiltzear dagoz.

Arrantzarik ez. Hausnartu, pentsatu, erabakia hartu eta egin.



IÑAKI EGUSKIZAGA

Abokatu erretiradua

Ez eta bai

kolektiboetan langileak kanporatzeko edo, bakarrik aurreikuspen negatiboak –ez galarak– alegatuta, funtsezko lan baldintzak aldatzeko (soldata, lanaldia, ordutegia...).

Atzerapausu horren atzetik honek dagoz: hemengo patronalaren eta Europar Batasunaren jarrera, eta gobernuaren erabakiak, besteak beste, CEOren, CCOOren eta UGTren arteko akordioan ezer ez aldatu izana, patronalak ezarritako betoari amore emonez; izan be, gobernuak inbestiduran bere alde bozkatu eben alderdiakaz (EAJ, ERC, EH Bildu) negoziatu izan ezker, lan-erreformari buruzko Errege Lege Dekretuaren emoiara besteren bat izango zan.

Halandabe, erreforma honek badiu bere alde positiboak be. Horreetako bat da ultraktibitatea, hau da, hitzarmen baten indarraldia amaitzen danean, berrtan jasotako eskubideak mantendu egiten dira; lehen, barriz, urtebete pasata hitzarmen barririk negoziatzen ez bazan, eskubide guztiak galtzeko arriskua egoan. Beste alde positibo bat da sektoreko hitzarmena enpresetako hitzarmenaren gantetik egotea: hori ondo etorriko jake langile askori, euren hitzarmenak baldintza txarragoak daukiezalako. Eta beste bat da kontratu batzuetan be langile finko izateko baldintzak hobetu egiten dirala.

Ez da panazea, batzuek iragartzen daben lez, baina lehenagokoa baino hobea bai. Horregaitik bozkatuko neukean bere alde.

Alaia
fruta-denda
Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua
Taller, 5
48170 Zamudio
94 685 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
Leizaola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Pasaporteak



FERNANDO OLABARRIETA
Psikologian doktorea eta jubilatua

Ibili naiz mundutik, apur bat, ez nik gura izan dudana beste, baina bai zenbait kultura diferentetan lekutan, Europan eta Ameriketara. Eta ez dut inoiz arazorik izan herrietan sartzeko eta handik lasai ibiltzeko, gehienetan poliziak ematen digun "agiri" hori erakutsi barik ere. Erabili izan ditut, hori bai, neure barruan beti eramaten ditudan pasaporteak: bata, antropologikoa, eta bestea, maitasunezkoa. Lehenengoak dio: "Ibili munduan txapela buruan", eta horrela ibili izan naiz, neure euskalduntasunaz harro, baina beste kultura eta izaera errespetatuz; bestea, maitasunezkoa, esaten hasten dena: "Pasaporte hau daramanak ez ditu beste gizaki baten eskubide oinarritzako inolaz ere urratuko...". Eta badiotsuet: ez dut sekula arazorik izan aske ibiltzeko.

Horrez gain, aspaldi honetako "pandemia" arazoak bitarteko, hirugarren pasaporte bat ere sartu dut nire motxilan, zientifikoa deiturikoa: "COVID-19: stigmatising unvaccinated is not justified", *The Lancet* medikuntzako aldizkari ospetsuan 2021eko azaroan argitaratua. Eta zelan diren gauzak, geure bertako agintariak eskatzen dutena aldean edo mugikorraren barruan izan ezik, ezin lekuetara sartu neure herrian. Eskatzearen arazoak osa-

sunaren aldekoak izango baziren, ba tira, beste neurri batzuk bezala gustatu ez arren beteko nukeen, baina agintarietako batek baino gehiagok esplizituki esanda "neurri soziala edo zibila" dela, derri-gorrezkoa (gaur arte behintzat) ez den zerbait bultzatzeko... Barkatu, ez al da hori pedagogia autoritarioa? "Nik esaten dudana egiten ez baduzu, hau edo beste kenduko dizut, edo ez emango..." askotan entzun behar izan duguna. Non da pedagogia demokratikoa, denok eza-gutzen duguna, pertsonak zerbait egin dezaten arazoekin eta ereduarekin konbentzitzen duena?

Badakit gauzak ez direla hain sinpleak eta testuinguruko beste aldagai asko ere hartu behar direla kontuan, baina, esanak esan, neure barru-barruan ukituta utzi nau debeku honek, nire ustez, Francoren garaitik gaur arte nire eta gure askatasun eskubideek sufritu duten erasorik gogorrena: hain inportanteak diren gauza bi ukatu dizkigute geure etxe aurrean, kultura eta sozializazioa. Zer da osterantzean modu bidegabean eta arrazoirik gabe antzokietara (Miribillara, Arriagara, Euskaldunara, Txorierriko Gabon kontzertuetara...) edota taberna-jatetxeetara ezin sartu ahal izatea? Eta esan gabe doa sistema honek etorkizunean ekarriko duena, Txinan ondo frogatu duten bezala. Laster, egunero "zintzomantso" izeneko pilula bat hartu beharko dugu asteburuko Athleten partiduetarako baimena irabazteko.

*Gauza bi ukatu
dizkigute geure etxe
aurrean, kultura eta
sozializazioa*

Larrondoko rokodromoa berritu egingo dute

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean adierazi duenez, laster hasiko dira Larrondoko rokodromoa berritzeko lanak. Zehatz-mehatz, hainbat koloretako 200 helduleku berri ipiniko dituzte eta gaur egungoak saneatu egingo dira, leku modernoagoa lortzeko eta eskalada-murruan ibilbide berriak atontzeko. "Herriko eskalatzaileek leku ona izatea nahi dugu, entrenatzeko eta kirol honetaz gozatzeko", idatzi du.



Kaleko argiak aldatzen dabilza Loiun

Loiu Argi planaren harira, udalerrir horretako Udala kaleko argiak aldatzen dabil, eta dauden orde LED argiak ipintzen. Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean idatzi duen moduan, dagoeneko aldatu egin dira Larrondoko, Elorritxuko eta Zamarripako argiak eta udaberriak aurrera hasiko da herriguneko argiak aldatzen. Gainerako auzoetako argiak progresiboki aldatuko dira Lauroeta auzora ailegatu arte. Orotara 2.000 argi ordezkaturiko dira.

Begoñaren hitzetan, argiak aldatzeak hiru onura nagusi ekarriko ditu: energia-kontsumoa % 50-70 murriztea, berotegi efektuko gasak gutxitzea eta, argitasun handiagoa egongo denez, herritarrek kalean seguruago ibiltzea.

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostirala:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelchenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea



Aireportuko autobusa, bertan behera, Sondikan eta Larrondon

2021eko urtarrilean aldaketa egin zen Bizkaibuseko A2153 linean. Hari esker, Txorierriko herri guztiek zuzeneko lotura zuten aireportuarekin eta Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearekin. Hala ere, urtebete pasa ondoren, Derio-Sondika-Derio tartea kentzea erabaki du Bizkaiko Foru Aldundiak, "eskari urria dagoelako". Erabakiaren ondorioz, Larrondoko eta Sondikako geldialdiak bertan behera utzi dira. Haserrea dago zerbitzuaren erabiltzaileen artean.

Aireportuan lan egiten duen sondikoztar bat kexatu denez, "orain, berriro hartu behar dugu autoa aireportura joateko, edo Derioraino zein Bilboraino joan eta autobusa hartu bertan. Erabiltzaile gutxi izanda, beste neurri batzuk hartu zitekeen, esaterako maiztasuna gutxitzea, baina zerbitzua kentzea ez da bidezkoa". Bestalde, Larrabetzutik irteteko ordutegiak ere aldatu egin dira: lanegunetan eta zapatuetan, orduero irteten da 6:30etik 21:30era; eta jaiegunetan, orduero, 07:35etik 21:35era.

Udal-frontoia erabat berrituko du Zamudiok

Zamudioko Udalak jakinarazi duen moduan, apirilean hasiko dira udal-pilotalekua erabat birgaitzeko eta aldagelak egokitzeko lanak. Besteak beste, sabaia aldatu eta harmailak handitu egingo dira, aldagelak eta komunak egokitzeko dira eta mugikortasun urriko pertsonentzako komun publikoa ipiniko da. Lanek 622.400,20 euroko (gehi BEZa) aurrekontua dute, eta 384.000 euroko dirulaguntza jasoko da Bizkaiko Foru Aldunditik.

Igotz López Zamudioko alkatearen esanetan, urteak daramatzate ilusio handiz frontoia eraberritzeko lan egiten eta pilotalekuaren erabiltzaileek ere ekarpena egin dute. "Kirol-ekipamendu osoa eta egokia eskaini nahi dugu, Arbolantxa Zamudioko Esku Pilota Taldeko umeek pilotari moduan aurrera egin dezaten eta euren familiek eta Zamudioko zaleek kirolaz harmaila zabal eta berrituetan goza dezaten. Gainera, aurreikusitako

hobekuntzei esker, herritarrentzat interesgarriak diren beste kirol-, gizarte- eta kultura-jarduera batzuk ere egin ahalko ditugu frontoian".

Aurreikuspenaren arabera, frontoia eraberritzeko lanek zortzi hilabete iraungo dute eta hiru fasetan egingo dira. Lehenengo fasean egitura zaharberrituko da; bigarren fasean kanpoaldea, fatxada eta estalkia atonduko dira; eta hirugarrenean irisgarritasunari lotutako lanak gauzatuko dira oinezkoentzat zein ibilgailu mugikorretarako.

Zamudioko Udalak obren lizitazio-prozesua ireki du eta, hasieran aipatu moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagunduko du egitasmoa. Dirulaguntza Bizkaiko 50 udalerritako kirol-instalazioak hobetzeko programaren harira emango da. Aldundiak 10 millioi euro bideratuko du programa horretara eta Deriok eta Lezamak ere jasoko dute dirulaguntza.



OAKLAND ENGLISH
LEHENDAKARI LEIZADLA PLAZA, 2
ZAMUDIO
946522857

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO
Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Especializatea:
Xafra-lanak
Zoruak
944522910 - 665703312 - 652772018

KORRIKA Kulturala



Antigone antzezana, Baserri Antzokian. a: AEK

KORRIKAren Txorierriko aurkezpena martxoaren 18an Baserri Antzokian egingo den arren, dagoeneko lotu dira datozen asteotan bailaran izango diren ekitaldietako batzuk. Horrela, martxoaren

5ean, goizean, arropa eta petoak ipiniko dira salgai Zamudion, eta Piratak kalejira egongo da, Goloka taldearen eskutik. Martxoaren 23an, 19.00etan, Bertsokorrika egongo da Derioko Kultur Birikan, Itallen

bertso-eskolak antolatuta; eta apirilaren 1ean, 19:00etan, Dorleta Kortazar ipuin-kontalariaren 80 amandre saioa ikusteko aukera egongo da Marikobaso espazioan. Aurrerago, ekintza gehiago iragarriko dira.

Bestalde, otsailaren hasieran aurkeztu zen 22. edizioko Korrika Kulturala Txorierriko Baserri Antzokian. Korrika Kulturalak herriz herriko eskaintza zabala proposatzen du, eta aurtengo emanaldien artean aipatzekoak dira, besteak beste, Ruper Ordorikaren *Hautsi da Anphora* ikuskizuna (Loraldia Festibalarekin elkarlanean eskainia) eta *eRRe* eta *Antigone* antzezlanak. Berrikuntzen artean, bestalde, nabarmentzekoena Kulturalaren "Menua"-n datza; hau da, herriz herriko emanaldi kulturalak programatzeko AEK-k osatutako katalogoa. Menuaren gaineko informazio guztia www.korrika.eus atarian topa daiteke, Kulturala atalean. Horretaz gain, webguneak Korrika Kulturalaren aterkian programatuko diren ekitaldi guztien berri ere jasoko du Agenda atalean.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak uztailean ipini zuen martxan Artxandako lur azpiko ur-biltegi berria, baina azpiegitura otsailean inauguratu da. Biltegi berriak 2.000 metro kubikoko edukiera du eta 24 orduan etengabeko hornidura bermatuko die eremu hauetako 5.000 biztanleri: Sondikako San Roke auzoa, Zamudioko Galbarriatu auzoa, Derioko Lobaga auzoa eta Bilboko Avril mendia, Remar-Sarrikue eta Artxanda auzoak.

Orotara 4,3 milioi euro ipini dira obra egiteko. Hori Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera finantzatu da, Ur Partzuergoak erakundearekin duen hitzarmenaren baitan. Lanak 2018ko urtearen amaieran hasi ziren eta hiru fasetan egin dira: zuhaitzak kentzea eta egokitze-lanak, biltegi eta hodi berriak eraikitzea eta eremua birjartzea eta hobetzea. Izan ere,

Artxandako ur-biltegi berriak etengabeko hornidura bermatuko du

lursaila berreskuratu da herritarren aisialdirako: San Rokeko bidea birjarri eta handitu egin da; aparkaleku berriak ipini dira; haurrentzako jolastoki berria atondatu da; zeudenak egokitzeaz gainera, oinezkoentzako pasaleku berriak jarri dira; argiteria hobetu egin da; eta landare inbaditzaileak kendu eta bertokoak landatu dira.

Aurrekariak

Artxandako lehenengo biltegiak 400 metro kubikoko bolumena zuen, eta oso erregulatze-gaitasun txikikoa zen. Ur-lamina 254,00 metroko kotan zuen, eta

hondokoa, 250, metroko kotan. Ondorioz, ponpaketak txarto funtzionatzen zuen, biltegia azkar husten zenez, egunean behin baino gehiagotan gelditzen zen eta.

Arazoa konpontzeko, 2.000 metro kubikoko edukiera duen biltegi erregulatzaile berria eraikitzea proposatu zen, bi ontzitikoa. Azpiegitura berria aurrekoa zegoen lekuan kokatu da, Artxanda mendiaren gainaldean. Helburuak dira etorkizuneko eskaera modu eraginkorrean asetzea, hornidura 24 orduan bermatzea, ponpaketaren funtzionamendua hobetzea eta gunea aisialdirako berreskuratzea.

 **Ale-apaindegia**
M^a Antonia Llodio TXOP
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

 **PATXI**
KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabizteko gunea - Txorierri 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel. 944 527 037 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

Intsonorizatze- lanak etxebizitza gehiagotan

Bilboko aireportuaren Ingurumenaren Jarraipen Batzordea otsailaren 16an batu zen eta 424 etxebizitza gehiagotan intsonorizatze-lanak egin behar zirela adierazi zuen Aenak bertan. Horretarako, proiektuak eta aurrekontuak egin dituzte. Horrezaz gainera, jakinarazi dute 72 intsonorizatze-eskari berri jaso dituztela eta, beharrezko paperak aurkeztuta, Isolamendu Akustikoaren Planaren barruan sartu dituztela.

Aenak azaldu duenez, dagoeneko 1.580 etxebizitza eta eraikin intsonorizatu dira Planaren baitan, eta gaur egun lanak 34 etxebizitzatan egiten dabilta. Planaren gaineko informazioa jasotzeko, Isolamendu Akustikoaren Planak Kudeatzeko Bulegora jo daiteke, 915 903 10 telefono-zenbakira deituta edo oficina.paa@ineco.com helbide elektronikora idatzita.

Bileran parte hartu zuten Derioko, Erandioko, Loiuko, Sondikako eta Zamudioko ordezkariak, Transizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko ordezkariak, Gobernuaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritzak, Eusko Jaurkitzariak eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Boxeo ekitaldia, Zamudion

Zamudio Box Inbox boxeo elkarteak boxeo-ekitaldia antolatu du martxoaren 12rako. Ekitaldia 19:30ean izango da herriko kiroldegian, eta hainbat borrokaldi egingo dira. Elkarteak jakinarazi ditu borrokaldietan parte hartuko duten elkarteko boxeolarien izenak eta euren lehiakideak nortzuk izango diren: Daniel Martin arikuko da Asier San Vicenteren kontra; Cristian Darwinek borrokatuko du Mohamet Jaleten aurka; Omar Zubeidik, Eder Fernandezek aurka; Mario Casquetek, Iban Paredesen aurka; Aitor Azurmendik, Michael Alejandroren kontra; Javier Martinek, Carl Waiterren aurka; eta Evander Martinek, Pablo Legarretaren kontra. Bestalde, azaldu dute Izaro Ungo boxeolariak ez duela ekitaldian parte hartuko, lesionatuta dago eta.

Bertakoentzako Inauteriak antolatu dituzte Sondikan

Inauteriez gozatzeko aukera izango dute berriro Sondikan; hala ere, Sondikako Inauteriak elkarteak argi utzi duenez, sondikoztarrentzako ekintzak izango dira eta, gainera, egungo neurriak kontuan hartuta, ezinbestekoa izango da hurrengo arau hauek betetzea: karparen barruan derrigorrezkoa izango da musukoa janzea eta ezin izango da ez jan, ez edan; ez da txosnarik egongo eta ekitaldiak amaitzen direnean atera beharko da jai-gunetik. Elkarteak azaldu duen moduan, oraindik ez da Inauteriak lehen bezala ospatzeko momentua, eta, horregatik, zuhurtziaz eta erantzukizunez jokatzeko deia egin diete herritarrei. Era berean, Inauteriak nork bere herrian ospatzeko eskatu dute.

Martxoak 4, barikua

Gaia: Urtezahar-gaueko kotilioia.

- 16:30 Kalejira eskolatik (buruhandiak).
- 18:00 Xaibor.
- 20:00 Taberna Ibiltaria.
- 22:00 Berbena.

Martxoak 5, zapatua

- 11:00 Umeen parkea.
- 12:00 Xigorki lehiaketa.
- 12:00 Kalejira, Elaia txistu-taldearekin.



- 12:30 Eluntxa fanfarrea.
- 13:00 Ginkana kuadrillentzat.
- 16:00 Bingoa eta kafea, Nagusien Etxean.
- 17:00 Musika eta dantza, Nagusien Etxean.
- 18:00 Umeen mozzorro-lehiaketa.
- 19:30 Nagusien mozzorro-lehiaketa.
- 20:00 Kalejira, Hortzmuga taldearekin.
- 21:00 Sardinen hileta.
- 21:30 Sariak banatzea: xigorkiak, erakuslehoak eta nagusien mozzorroak.
- 23:00 Berbena.





Larrabetzu 2. tarifa-gunera sartuko da ekainean

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, joan den barikuan Gorka Ugalde Bizkaiko Garraio Partzuergoko gerentearekin batu ziren, eta bileran udalerria tarifa-gunez aldatzeko eskaera izan zuten hizpide. Ugaldek azaldutakoaren arabera, Bizkaiko garraio publikoaren tarifikazio osoa aldatuko da laster eta bost eremu izan beharrean, hiru eremu egongo dira; ondorioz, Larrabetzu 2. tarifa-gunera pasatuko da. "Aldaketa ekainerako egingo den konpromisoa hartu zuen Ugaldek".

Garraioa Irauli plataforma eta udala aspalditik dabilta Larrabetzu 2. tarifa-gunera aldatzeko eskatzen. Izan ere, Txorierriko udalerria den arren, Bizkaibuseko zerbitzuari dagokionez, Larrabetzu 3. tarifa-gunean dago, baina Txorierriko gainerako herriak eta Galdakao, berriz, 2. tarifa-gunean; beraz, larrabetzuarrek % 22-26 garestiago ordaintzen dute autobus-txartela. Azken hilabeteetan, Garraioa Irauli plataformak hainbat ekimen egin ditu garraio publiko duina eskatzeko, hala nola sinadurak batzea eta autobusak gelditzea. Ugalderekin izandako bileraren berri eman die udalak herritarrei eta

plataformako kideei, eta erabaki dute "ekainera arte itxarotea, mobilizazio gehiago egin barik, baina erne egonda eta Aldundiari gogoratuz aldarrikapenak bere horretan jarraitzen duela".

Beste aldetik, Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkatea otsailean ere batu zen Migel Angel Gomez Viar Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria sustatzeko foru-diputatuarekin. Larrabetzu tarifa-gunez aldatzeko aukeraz gainera, beste gai batzuk ere hizpide izan zituzten biler horretan. Izan ere, Garraioa Irauli plataformaren eta udalaren beste aldarrikapen bat onartu du Aldundiak: A2151 lineako goizeko 8etako autobusa ere unibertsitaterraino ailegatzea. Era berean, lanak hasi dira herriguneko geldialdian markesina modernoago bat ipintzeko. Altzairu herdoilgaitzekoa eta bidriozkoa izango da, erabat gardena, eta kaleko argietara lotuta egongo da. "Horrek ekidingo du gune beltzak sortzea". Gurpilauletarako gunea edukiko du eta ingurumenarekiko adeitsua izango da, material birziklatuak erabilita egingo delako eta bertan LED argiak ipiniko direlako.

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Maidar Mugarza da otsaileko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birenzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri n° 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko oga
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominazioa de origina

Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

**TABERNA
GAZTEI**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

**Enaitz
TABERNA**

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

Ia 1.000 korrikalari batu ziren Zamudioko Krosean

Otsailaren 13an, eskola-krosa, familientzako lasterketa eta herri-krosa izan ziren Zamudion, Beste Bira Loiu atletismo taldeak antolatuta. Lasterketak Bidekoetxe parkean egin ziren, Zamudioko Udalak utzitako eremuan, eta bertan 950 korrikalari baino gehiago batu ziren.

Beste Bira taldea pozik baino pozago azaldu da parte-hartzaileen kopurua zein Zamudiora hurbildu ziren ikusleen kopurua direla eta. Era berean, eskertu egin dute Udalaren, babesleen eta taldekideen laguntza. "Klubeko gurasoen eta aitite eta amamen laguntza barik ezinezkoa izango zen hau guztia antolatzea. Bestalde, aukera handiak eskaintzen dituen zirkuitua da eta aurrerago beste proba bat egiteko proposamena egin digute".

Herri-krosari dagokionez, lehen sailkatua gizonen kategorian izan zen Juan Carrascal (13:07), bigarrena Mikel Alvarez (13:10) eta hirugarrena Fernando Martin (13:12). Emakumeen kategorian, lehen sailkatua Alluitz de Bilbao (15:58) izan zen, bigarrena Raluka Ungureanu (16:05) eta hirugarrena Ines Gonzalez (16:33).

Euskal Herriko Mus Txapelketa, Lezaman martxoaren 12an

Kanporaketa 16:30ean izango da Enaitz tabernan eta izena ematea bertan egin beharko da; bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Irabazleak Bizkaiko kanporaketarako sailkatuko dira. Euskal Herriko Mus Txapelketa 13. aldiz egingo da aurten eta finala Baigorri jokatu da apirilaren 9an; herrialdeetako finalak, bestalde, martxoaren 26an eta 27an izango dira. Hainbat sari banatu dira parte-hartzaileen artean. Txapelkun, esaterako, sarritzat jasoko dituzte txapela, garaikurra, 3.000 euro eta lau lagunentzako nazioarteko bidaia; eta txapelkunordeek, garaikurra, 1.500 euro eta bi lagunentzako nazioarteko bidaia. Informazioa eta arauak www.ehmu.eus webgunean kontsultatu daitezke.

Uriartetarrek, Bizkaiko pilota txapelkunak

Aiala eta Adrian Uriarte anai-arreba sondikoztarrek Bizkaiko pilota txapelketa irabazi zuten. Partida biak jaialdi berean jokatu ziren zapatu goizean, otsailaren 19an, Zornotzan. Aiala Uriartek (Lezamako Pilota kluba) 22 eta 10 irabazi zion Amaia Zarrabeitiari (Gernikako Arkupe pilota taldea) emakumezkoen bigarren mailan. Markagailuari erreparatuz gero, partidak desorekatuta eman zezakeen, baina pilotariek lehia bizia eskaini zuten.

Beste alde batetik, Adrian Uriartek ere lortu zuen garaipena. Sondikoztarrek (Lezamako Pilota kluba) estu eta larri, 22 eta 21, irabazi zion Bingen Beitiari (Zeanuriko Joko Alai taldea) kadete kategoriako lehenengo mailan. Partida polita izan zen, oso orekatuta. Lehia irabazita zegoela ematen zuen Adrianek 21 eta 18koa markagailuan jarri zuenean, baina Beitiak borrokatzen jarraitu zuen azken mementora arte. Ahalegina, or-



dea, ez zen nahikoa izan eta azkenean, Lezamako klubaren pilotariak Bizkaiko txapela jantzi zuten.



ALBERDI-IZTUETA ETA IRRIBARRIA-ESKUZA, TXAPELDUNAK. – "Juan Mari Dañobeitiaren omenez" Lezamako Eskualde Txapelketa otsailaren 18an bukatu zen. Gazte mailan, Ekhi Irribarria lazkaotarrak eta Arkaitz Eskuza aretarrak 22 eta 10 irabazi zieten Aingeru Bernaola mañariarrari eta Faben Ituarte atxondarrari. Partidan ez zen lehia handirik egon, gipuzkoarra eta arabarra argi eta garbi nagusitu zirelako. Bestetik, lehenengo mailan, Julen Alberdi eta Martxel Iztueta tolosarrek 22 eta 19 irabazi zieten Iker Espinal eta Aitor Alduntzin huarterarrei. Laurok maila ona erakutsi zuten, baina Iztueta erabakigarria izan zen eta horregatik izendatu zuten txapelketaren pilotaririk onena.

“Oier Beldarrain Lazkano” beka sortu du Larrabetzuko Udalak

Larrabetzuko sortzaile gaztea zen Oier Beldarrain Lazkano, eta iazko urtarilean zendu zen. Udalak beka bat sortu du bere omenez. Beka herriko gazteentzat da eta hurrengo helburu hauek ditu: euskarazko kulturgintza bultzatzea, gazteen artean euskarazko sorkuntza sustatzea, gazteek gazteentzat sortutako jardueren bidez eragitea euskarazko kultura-programazioan eta gazteek sormena garatzeko aukera eta guneak izatea. Bekarako 4.000 euro esleituko dira urtero.

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, kultura-sorkuntzat jotzen da “ar-

tistaren imajinaziotik eratorritako edozein lan edo obra: musika, pintura, eskultura, literatura, antzerkia, bakarriketa, poesia-emanaldia, bertsolaritza, zinema, komikia, soinu-konposizioa, ikus-entzuzko konposizioa, konposizio digitala eta dantza, beste batzuen artean. Baita diziplinen arteko hibridazioa ere”. Azaldutakoaren arabera, beka arautzen duen ordenantza otsailaren 8ko osoko bilkura berezian onartu zen; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, bekaren deialdi publikoa martxoaren bukaeran zabalduko da.



Bizipuntuak Txorierrira etorri dira

Bizipuntuak bizikletak konpontzeko eta mantentzeko guneak dira. Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarri ditu Bizkaia osoan eta otsailean, Derion, kiroldegia alboan, Txorierrira aurkeztu dira. Derioz gainera, Bizipuntuak herri hauetan jarri dira Txorierrin: Sondikan, Larrabarrena parkean; Larrabetzun, Elexosteko aparkalekuan; eta Lezaman, Herriko plazan.

Bizipuntua doako zerbitzua da eta horri esker, txirrindulariek tresna batzuk izango dituzte eskura nork bere bizikleta behar bezala konpontzeko eta zaintzeko: bihurkinak, giltza ingelesa, giltza finkoak, allen motako giltza txikiak.... Gainera, mahuka bi ditu: bata, gurgilak puzteko; eta bestea, ura botatzeko, bizikleta garbitzeko, esate baterako. Azkenik, QR kodeak ere jarri dituzte eta horien bidez, hainbat tutorial eskainiko dira, konponketa sinpleak erakusteko.



SUITE DELUX
25
URTEURRENA

CARPE DIEM BEDS EXCLUSIVE EDITION 25. URTEURRENA

SUITE DELUX

Ohea aldatzen dizugu,
bizitza hobetzen dizugu

BILBAO Lodesma 32 | Tf. 944 145 875
DERIO Seminario | Tf. 944 545 147
LEIOA Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516

www.suitdelux.com

t: Gaizka Eguzkitza / a: Olarreta taldea

Zelan Larrabetzu?

Ondo, gustura. Antolatzaileek oso ondo hartu ninduten eta umeak izugarri gustatzen zaizkit. Horrelako bisitak askotan egiten ditut pilota eskoletara. Saiatzzen naiz nondik natorren ez ahazten: ni ere izan nintzen umea eta ezagutzen dut haiek duten ilusioa pilotariak zuzenean ikusten dituztenean.

Zelan umeekin?

Oso ondo. Batzuetan, umeek egoera zail batean jarri ahal zaituzte, baina pilota-eskoletan eroso sentitzen naiz. Haur larrabetzuarrek zintzo jokatu zuten: galderak egin zizkidaten, argazkiak egin genituen eta gero elkarrekin ibili ginen pilotakadak ematen.

Zelan hasi zinen pilotan jokatzeko?

Etxe ondoan frontoia eta futbol ze-laia genituen eta pilotan hasi nintzen jokatzeko. Egun osoa ematen genuen frontoian, jolasten. Handik aurrera, gero eta gehiago gustatu zitzaidan eta pilota pasio bihurtu zen.

Larrabetzun esan zenuen txikitan ez zenuela profesionala izateari buruz pentsatzen. Noiz konturatu zinen? Momentu zehatz batean gertatu zen?

14 urte nituela, Aspe enpresa harremanetan jarri zen nirekin. Hor hasten zara pentsatzen, baina nik esango nuke beranduago barneratu nuela profesionala izan ahal nintzela, agian 17 urterekin: ondo zabilta, partidak irabazten dituzu... Gaztetan, nire helburua ez zen profesionala izatea, hobetzen jarraitzea baizik. Zaletu mailan, aurkari ederrak topatu nituen eta ohartu nintzen ni euren mailan nenbilela, batzuetan esperientzia handiko pilotariak mendean hartzeko gauza nintzelako. Hor ikusten duzu zaletu mailatik profesional mailara salto egin ahal duzula.

Zure ibilbidea oso arrakastatsua izan da, zortzi urtetan, bost txapel garrantzitsu dituzu eta. Zein izan da gozoena?

Guiztiak dira gozoak. Lehenengoa sentazio berria da, baina gainerako baikoitzak bere esangura izan du: lesioen bat gainditu duzulako, bolada txarra izan duzulako... Txapela guiztiak dira bereziak, hara heltzeko bide luzea dagoelako atzetik. Eta bide horretan momentu onak eta txarrak izan dituzu.



"Zoriontsua naiz pilota esku artean dudanean"

JOKIN ALTUNA | pilotaria

Pilotari itzela da Jokin Altuna; zalantzarik ez. Baina gazte hurbila eta jatorra ere badela ikusi genuen otsailean, Larrabetzun. Izan ere, amezketarrak bertako umeekin eman zuen arratsaldea, Olarreta Pilota eskolaren eskutik: hurrekin hitz egin zuen, argazkiak egin zizkioten eta pilotakadak ere eman zituzten elkarrekin.

Zein izan da aurkaririk gogorrena?

Ez dakit. Pilotari askoren kontra jokatu dut, eta batzuk oso onak: Aimar Olaiola, Juan Martinez de Irujo, Oinatz Bengoetxea eta Joseba Ezkurdia, gutxi batzuk aipatzearren.

Pilota kirol gogorra da, bakarrik zaudelako, talde baten babes barik. Zelan kudeatzen dituzu momentu txarrak?

Bai, batzuetan bakarrik sentitzen zara frontoian: frontoia oso handi ikusten duzu eta zu oso txiki sentitzen zara. Hori saihesteko, gehiegi ez pentsatzea gomendatuko nuke, hau da, akats bat egiten duzunean, ez duzu horren inguruan gehiegi pentsatu behar, partidak aurrera egiten duelako. Arretari tantuz tantu eutsi behar diozu, berdin dio zer gertatu den aurreko jokaldian.

*"Txapela guiztiak
dira bereziak,
hara heltzeko
bide luzea
dagoelako atzetik"*

*"Gaur egun, nire
ametsa hobetzen
jarraitzea da. Eta pilotan,
profesional moduan,
luze ibiltzea"*



Lau t'erdikoko espezialista

Altuna III.a esaten zaio Jokin Altunari (Amezketan, 1996), bi osaba erremonte-pilotari profesionalak ere izan zirelako. Gipuzkoarra azken urteotako pilotaririk onena izan da: bi aldiz irabazi ditu Buruz Buruko Txapelketa (2018an eta 2021ean); eta hiru aldiz, Lau t'erdikoa (2017an, 2020an eta 2021ean). Gainera, hainbat aldiz txapeldunordea ere izan da: 2020an, banaka; eta 2016an, 2018an eta 2019an, Lau t'erdikoan.



Batez ere ondo aritu zara lau t'erdiko txapelketan, 2016tik finalista urtero izan zarelako. Zergatik zabilta hain ondo lau t'erdikoan?

Ez dakit. Eraitza onak lortu ditut eta konfiantza jokatu dut. Txapelketa bakoitza desberdina da, baina momentu erabakigarrietan maila ona erakutsi dut. Aintzat hartzen dut nire ibilbidea lau t'erdikoan, zaila izan delako. Dena dela, ez



dut uste lau t'erdikoan buruz burukoan edo binakakoan baino hobea naizenik. Hiru txapelketetan lehiakorra izatea dut helburu eta hori lortzen nabilela uste dut. Beraz, pozik nago.

Eta zergatik ez duzu oraindik binakako txapelketan final bat ere jokatu?

Ez dakit, ez dut horretan gehiegi pentsatzen. Zortzi bikotek hartzen dute parte

txapelketan eta haietako batek bakarrik irabaz dezake; eta beste bat bakarrik izango da finalista. Zaila da, gauza asko hartu behar dira kontuan: agian ez naiz momentu garrantzitsuetan fin ibili, agian bikotekideak akatsak egin ditu... Gustura nabil binakakoan, gaztea naiz, eta ziur nago finala iritsiko dela.

Aurten finalerdiak jokatzeko itxaropenik baduzu?

Bai, horretan gaude, borrokan. Helburua finalerdiak jokatzeta da, eta gero ikusiko dugu. Baikorra naiz, eta aukera dagoen bitartean, irabaziko dudala uste dut. Maila ona ematen gabilta eta horrela jarraituz gero, finalerdia jokatuko dugu.

Hainbeste txapela irabazi eta gero, baduzu ametsen bat oraindik?

Gaur egun, nire ametsa hobetzen jarraitzea da. Eta pilotan, profesional moduan, luze ibiltzea. Pilota nire pasioa da, eta zoriontsua naiz pilota esku artean dudanean. Beste alde batetik, jendeak izugarritzko babes ematen dit frontoietan eta hori itzela da. Eta ahalik eta ondoen egin nahi dut, publikoak nire jokoarekin gozatzeko.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe 4 B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Eteagabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

“Arkitektoen ardura ere bada karbono-aztarna gutxitzea”

t: Itxaso Marina Ondarroa

“Arkitekturatik gehien gustatzen zaidana da diziplinarteko lanbidea dela: era askotako hainbat gairi buruz ikasteko aukera ematen du eta etengabeko bilakaeran dago; hortaz, atzetik gatozenoi garatzeko eta hobetzeko aukera berriak ematen dizkigu”, azaldu digu. “Ez nekien karrera teknikoegia izango ote zen eta, badaezpada, Arkitekturaren ez ezik Diseinu Integralean ere matrikulatzea erabaki nuen. Egia esan, azken hori ez da espero nuena, nire ustez, marka sortzean eta identitate korporatiboan arreta handiegia ipintzen delako; aitzitik, oso gutxi ikusi dugu barne-diseinuari buruz. Ahal dela, gradu bikoitza bukatu eta barne-diseinuari buruzko masterra-edo egitea gustatuko litzaidake”.

Sei urteko gradu bikoitza da eta lezamarra hirugarren mailan dago. “Ikasturterik ikasturte, ikasgaiak praktikoagoak dira, baina oreka dago teoriaren eta praktikaren artean; bosgarren urtean egiten dira praktikak enpresetan. Karrera hasi baino lehen pentsatzen nuen batez ere marrazketa teknikoa ikasiko genuela, baina antropologia, ergonomia, anatomia, filosofia... ere ikasten dugu. Izan ere, esaterako, zinema-areto bat diseinatu behar baduzu, zinemari buruz ere jakin behar duzu, baita matematikari buruz ere”.

Oraindik ez du argi zein arlotan lan egin nahiago lukeen. “Arkitekturaren eta diseinuaren esparru asko gustatzen zaizkit, baina momentuz ez dut oso-oso gustuko dudan arlorik topatu; beraz, saiatuz joango naiz. Etxebizitzak edo gune txikiak garatzea interesatzen zait gaur egun, agian, orain arte gehienbat horiek jorratu ditugulako; karreran aurrera egin ahala handitzen da proiektuen zailtasuna —eraikin publikoak, etxe orratzak...—, eta ez dakit etorkizunean haienganako interesik izango dudana... Nolanahi ere, egiten dudana egiten dudala, argi dut oso kontuan hartuko ditudala ingurumenarekiko arduratsuagoak eta kontzientziazkoak diren eraikuntza eta diseinua:

ALAIA GOMEZ LUQUE | Arkitekturaren ikaslea

Institutuan zebilela konturatu zen interes handia zuela diseinuan, teknologian, eraikuntzan, artean eta sormenean. Arkitektura da diziplina horiek guztiak uztartzen dituen karrera eta horregatik aukeratu zuen. Gainera, diseinu arloan motz ez gelditzeko, 21 urteko lezamarrak gradu bikoitza egitea erabaki zuen: Arkitekturaren oinarriak eta Diseinu integrala eta irudiaren kudeaketa. Madrilen dabil ikasten, Rey Juan Carlos unibertsitatean.



*“Arkitekturatik
gehien gustatzen
zaidana da
diziplinarteko
lanbidea dela”*

materialengatik edota eraikinak nola eraikitzen eta nola eraisten diren moduagatik, eraikuntza da gehien kutsatzen duten sektoreetako bat, eta, nire ustez, arkitektoen ardura da hori kudeatzea eta karbono-aztarna gutxitzea.

Aipatu digunez, etengabeko informazio-fluxua jasotzen dute arkitektoei, estilei, joerei... buruz, eta horren eraginez konturatu da arkitektura organikoan interes handia duela. “Arkitektura modernoa linealagoa da, zurruna, lerro zuzenak ditu, kuboak, triangeluak...; arkitektura organikoa, berriz, lerromakurragoa da eta natura ekartzen dit gogora. Orain arte egindako proiektuetan azken arkitektura-mota horretara jo dut eta gauza organikoak eta lerromakurrak egin ditut... Ez dakit iparraldekoa izateak eraginik izango duen! (karakar). Hala ere, egia da arkitektura organikoa zailagoa dela diseinatzen eta eraikitzen”.

Estetikatik haratago

Arkitekto bat esan beharko balu, Zaha Hadid esango luke. “Arkitekto asko dira aipagarriak, baina bera aipatuko nuke, arkitektura organikoa hain zuzen jorratzen duelako. Interesgarria da arkitektoek egin dutena aztertzea, zertan asmatu duten eta zertan huts egin”. Bidaia ahal izateak eta beste herri batzuetako arkitekturatik ikasi ahal izatea ere eragingarri handia da lezamarrentzat. “Nire iritziz, Europako arkitektura oso deigarria da. Hego Amerikakoa ere interesgarria da eta gustatuko litzaidake Asiatik bidaiaitzea eta bertan lan egitea, uste dudalako hango arkitekturatik ere asko ikasi ahal dudala. Karrera bukatzen dudanean nahiko nuke hainbat herrialdetan lan egin, ikasteko eta gure arkitektura are gehiago aberasteko”.

Gaztearen esanetan, arkitektoek estetikari begira lan egiten duten ustea dago, baina euren eginkizuna askoz haratago doa. “Azken batean, arkitektura da arazo bati konponbidea ematea eta gune bat optimizatzea, pertsonen zinema, anbulato-

*“Oso kontuan hartuko
ditut ingurumenarekiko
arduratsuagoak eta
kontzienteagoak diren
eraikuntza eta diseinua”*

rioa, etxebizitza... ahalik eta ondoen erabili ahal izateko. Are gehiago, pentsatu behar da toki hori nola garbitu edo eraikin bat nola diseinatu, hura lurrera bota behar izanez gero, ingurumen-inpaktua gutxitzeko”.

Azterketak egin ditu urtarrilean eta ondo atera zaizkiola esan digu. “Karrera zaila da: gradu bikoitza 14 lagunek hasi genuen eta gaur egun zazpi gaude. Oso ahalegin handia eskatzen duen karrera da eta gustatu behar zaizu; bestela, ez duzu bukatzen”. Madrilera ikastera joan zen, Rey Juan Carlos unibertsitatea baita gradu bikoitza egiteko aukera ematen duen unibertsitate bakarra. “Erronka akademikotzat zein pertsonaltzat hartu nuen

*“Arkitektura organikoan
dut interesa:
lerromakurragoa
da eta natura
ekartzen dit gogora”*

erabakia”. Denboraldi batean Fuenlabradan bizi ondoren, Aranjuezen du bizilekua gaur egun, Madrilgo erdigunetik 45 minutura hegoaldera. “Bertan ez dago mugimendu handirik, ezta erdiguneak duen aisialdi-aukera zabalik ere, baina leku lasaia da, eta berdea. Lagun batekin bizi naiz, eta denbora librean dudanean saiatszen naiz Madrilgo lagunak ikusten; edo erdigunera joaten gara plan ezberdin bat egitera, edo Aranjuezen bertan gelditu”. Aitortu du lehen gehiago etortzen zela Lezamara. “Ikasgaiak gero eta zailagoak dira eta, ondorioz, gero eta denbora gutxiago dut etxera joateko. Baina ahalegintzen naiz Lezamara gutxienez bi hilabeterik behin joaten senideak eta lagunak ikusteko”.





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lantegi Heziketa eta Bideren Irakasgaitasun Institutua

Unitatek: Euzko Kalea, 1
48160 - DEIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esperuen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIA, ENERGIAREN
ETA ASPIGERTURA SAIA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS





40 urte, milaka txori

Martxoaren 8ko historia tragikoa

Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, munduko herrialde askotan ospatzen den eguna. Egun horretan kontinente guztietako emakumeek bat egiten dute, berdintasunaren alde borrokatzeko, sarritan muga nazionalak eta ezberdintasun etnikoak, linguistikoak, kulturalak, ekonomikoak eta politikoak bereizten dituzten arren.

Zergatik martxoaren 8a?

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko beharra XIX. mendearen amaieran sortu zen, Industria Iraultzaren ondoren. Garai historikoa izan zen hori; ekonomia eta lan egiteko modua aldatu zen, emakume asko esplotatzen zituzten eta legeak ez zituen babesten.

Hori dela eta, 1857ko martxoaren 8an, New Yorkeko ehungintzan lan egiten zuten emakumeek greba egin zuten, lanbaldintza duinak eta soldata justuagoak eskatzeko. Hala ere, poliziak isilarazi eta zapaldu egin zituen. Hori izan zen, datozen urteetan izan ziren hainbat mugimendu sindikal eta sozialen abiapuntua.

51 urte geroago, 1908ko martxoaren 8an, 15.000 emakumek New Yorkeko kaleak hartu zituzten soldata igoera, lanordu gutxiago, botoa emateko eskubidea eta haurren lana debekatzeko eskatuz. Horretarako, "ogia eta arrosak" eslogana erabili zuten, ogiak segurtasun ekonomikoa adierazten zuelako eta arrosak bizi-kalitate hobea.

1909ko otsailaren 28an, Estatu Batuetan, lehenengo aldiz ospatu zen Emakumearen Egun Nazionala. 1910ean, Kopenhagen, mundu mailako konferentzia bat egin zuten. Topaketa horretan 17 herrialdek baino gehiagok parte hartu zuten eta bultzatzaileetako bat Clara Zetkin izan zen.

1911ko martxoaren 19an, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu zen lehenengo aldiz, Europan eta Estatu Batuetan. Baina, martxoaren 25ean, borroka

feminista betiko mar-
katuko zuen gertaera tra-
giko bat gertatu zen. 123
emakume langile hil ziren
New Yorken, alkandorak
egiteko fabrika batean,
su hartu zuenean. Enpre-
sako jabeek eraikineko
ateak itxita mantentzea
erabaki zuten, langileak
barruan utzita sutetik
ihes egin ezinik.

1917an Errusian monarkia erori zenean, emakume asko greban zeuden bizi-baldintza hobekuntza eskatzeko. Hori dela eta, uneko go-

bernuak, martxoaren 8an,
emakumezkoei botoa ema-
teko aukera eman zien.

Bigarren Mundu Gerra eta gero, herrialde asko batu ziren Emakumearen Eguna ospatzera, nahiz eta Nazio Batuek 1975ean ospatu lehen aldiz. Ordu-tik ona, martxoaren 8ak beste dimentsio bat hartu du azken urteetan herrialde garatuetan. Izan ere eta gizonezkoen berdinezgizarte eredu parekide baten aegitena da.

[illegible]

EMAKUME ERREFERENTEAK

Larrabetzu eta Zamudioko herri ikastetxeetako, LH6ko ikasleen marrazkiak.





Bunkerrak

Aurreko zenbakian azaldu genuen gure asmoa: mendi ibilaldi batzuk proposatzea zen-bait gauza interesgarri ikusteko. Bunkerrekin hasiko gara. Eta zer dira bunkerrak? Wiki-pediak dicit: "Bunkerra gerra garaian jendea edota hornigaiak hegazkinen aire bonbar-daketa eta lurreko artilleriaren lehergaien erasoetatik babesteko bereziki diseinatutako eraikin militar gotortua da. Nagusiki lurpeko eraikinak dira, burdin eta hormigoiz eginak".

t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Txorierrri bunkerrez inguratuta dago. Gehienak 1936ko gerra malapartatuaren aztarnak dira, tropa frankistek Bilbo ez okupatzeko eraikiak eta Burdin Hesia edo *Cinturón de Hierro* moduan ezagunak. Ja-kina denez, alferrik izan zen, zeren fran-kistak hain justu Txorierritik sartu ziren Bilbora, Morga, Fika eta Larrabetzutik "ge-rrikoa" deseginez, milaka bonben eragi-nez.

Txorierrri eta Mungialdeko bailarak bereizten dituen mendi lerroa garai har-tako bunkerrez josita dago. Luzaro utzi dira bertan behera, baina azken urteo-tan euren balioa berriro azpimarratu da; besteak beste, garbitu dira eta arkeolo-goek aztertu dituzte.

Holako bunker bat aurkituz gero, me-trailadore habiak hain zuzen, konturatuko gara oso gutxi daudela osorik. Gehienei sabaia, goiko partea, falta zaie. Arrazoa hauxe da: 50eko hamarkadan burdina oso eskasa eta garestia zen eta hura lor-tzeko otu zitzairen bunkerren sabaia le-herraraztea, hormigoi armatukoak zire-nez, burdina zutelako.




Goian, Zubiaurreko bunkerra;
hemen, Gaztelumendiko
metrailadore habia. a: Iñaki
Olabarrieta

Argitu behar da bunker guztiak ez direla garai berberakoak. Artxandako-ak, esaterako, (oso aproposak umeekin galerien artean jolasteko), beranduago-koak dira eta oso-osorik daude. Horiek Frankoren garaian eraiki ziren, aliatu men-debaldarren erasoan beldur (nazien aur-

kako aliatuak). Unbe, Punta Lucero, Gor-lizekoak... ere berdin.

Gerra garaikoetara itzulita, bunkerrez edo metrailadore habiez gain, trintxerekin ere topo egin dezakegu hainbat lekutan. Sigi-saga doaz bunkerrez bunker. Batzuk lurrez erdi estalita badaude ere, ez da zaila



Txorierri bunkerrez inguratuta dago. Gehienak 1936ko gerra malapartatuaren aztarnak dira

horiek identifikatzea. Aterpe-zuloak ere ikusgarriak dira, eskuz egindako kobak: bonbardaketak gogortzen zirenean bertan ezkutatzen ziren gudariak. Holako edozein aztarna bat aurkituz gero, begiak itxi eta joan 1937ko ekainaren 11ra edo 12ra. Ez, ez da giro.

Bizkaian zehar hainbat bunker eta ibilbide aurkitu daitezke, gaur egun asko garbituak eta ondo seinaleztatuak. Adibide batzuk jartzearen: Urdulizko Santamañe haitzetan egindakoak, Arrigorriaga eta Ugao artekoak, Lemoakoak... asko.

Ibilbide proposamena

Ibilbide lasaia da, 9 km ingurukoa eta urteko edozein sasoian egiteko modukoa. Zati gehiena errepidetik egiten da. Larrabetzuko uritik hasi, eta, mapan agertzen den moduan, Loroño auzorantz egin behar da. Laster eskuinean aurkituko dugun lehen baserriaren atzetik estrata bat dago. Hori hartuko dugu. Eskuinean dagoen bihurgunetik jarraitu, eta gero ezkerretara joko dugu gorantz egiteko. Aldapatxoa apur bat igo, eta lehen bunkerra agertuko da ezkerretara. Kontuz ibili beharko dugu, zeren erdi estalita egoten da eta bidezidorretik ez da ondo ikusten. Utzi dugun errepidetik 200 metro ingurura dago. Hortik aurrera jarraituta eta 400 metro inguruko eremuan aurkitu daitezke bunker gehiago, lubakiak, babes-zuloak eta omenezko eskulturak. Horiek beste une baterako utzi, eta atzera egingo dugu bidean.

Segituan San Bartolome ermita dotore ondotik pasatuko gara. Geldiunea merezi du. Aurrerago Ankapalu sagardotegia topatuko dugu, Loroño auzoa... Gaztelu auzotik pasatu ondoren, ezkerretara Gaztelumendiko bidea hartuko dugu. Ia tontorrean gaudela, hiru metrailadore habia ikusiko ditugu: haietako bi osorik daude, baina ez da ohikoa. Itzulera leku beretik egin dezakegu; bestela, Goikoelexaldera jaitsi ahal gara, eta handik Larrabetzura.

Aikor!-en webgunean ibilbide gehiagori buruzko informazioa aurkituko duzue. Ibilbideetako bat Gamizen hasten da, beste bat Fikan, eta beste bat Zamudion. Gainera, beste webgune batean Larrabetzuko beste aztarna batzuk bisitatzeko argibideak azaltzen dira.

Otsailaren 11n ospatu zen Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna. Data hori aitzakiatzat hartuta, Leioako Zientzia eta Teknologiako fakultetera hurbildu ginen Teresa Arbeloa sondikoztarrarekin solasaldian ibiltzeko. Arbeloa Kimika Fisikoko irakaslea eta ikertzailea da bertan.

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Zergatik da ezinbestekoa emakume zientzialarien lana ikusgai egitea?

Bigarren mailan, ezkutuan, izan delako beti. Orain ez da hainbeste gertatzen, baina lehen lorpen guztiak gizonenak zirela pentsatzeko joera zegoen eta egia da lorpen edo aurkikuntza horietako askoren atzean emakumezko laguntzaileak izaten zirela. Ez dut inondik inora esan nahi gizonezko zientzialarien lana garrantzitsua ez denik: gizonezko zientzialarien lana eta emakume zientzialariena bezain garrantzitsuak dira eta biak agerian utzi behar ditugu.

Zientziei lotutako ikasketetan neska gutxi daudela entzuten da askotan.

Ikaslea zein irakasle hasi berria nintzela, nesken kopurua eta mutilen kopurua antzekoa zen ikasgeletan, nahiz eta mutilak gehiago izan. Hala ere, aldea nabarmenagoa zen ikasketa-motaren arabera: adibidez, kimika irakasle ibili nintzen Fisikako karreran eta bertan handiagoa zen mutilen kopuruaren eta nesken kopuruaren arteko aldea. Esango nuke gaur egun Kimikan neska gehiago daudela; hala ere, kopurua txikiagoa da ingeniariaritzan kimikoan edota gradu teknikoagoetan. Inportantea da neska gazteak ikasketa horietara bideratzea, jakina. Dena dela, argi utzi behar dut ni ikasleen kopuruaz ari naizela eta horrek ez du adierazten ikasketak bukatu ondoren lana zientzia arloan topatzen duten edo ez.

Zergatik erabaki zenuen Kimika ikastea?

“Zerbait ezezagun b... gustatzen zait, eta”

TERESA ARBELOA LOPEZ | kimikaria



Kimikari asko gara etxean: aita kimikaria zen eta bederatzi anai-arrebetatik bost kimikariak gara. Baina ez pentsa etxean kimika eguneroko gaia zenik! Ez horixe! Ez dakit genetaren edo dugun... (kar-kar). Egia esateko, nik Biokimika ikasi nahi nuen, baina garai hartan ez zegoen karrera hori eta Biologian matrikulatu behar nuen, gero Biokimikan espezializatu ahal izateko. Eta niri ez zitzaidan Biologia batere gustatzen... Hortaz,

unibertsitateko matrikula egin behar izan nuen egunean, nire txandaren zain nengoela, zalantzan izan nintzen ilaran: Biologia ala Kimika. Nire txanda ailegatu zen eta leihatilan bertan erabaki nuen Kimikan izena ematea.

Inoiz damutu zara erabaki hori hartu izanaz?

Ez. Edozein arlotan gertatzen den moduan, nik ikuspegi erromantikoa nuen karrerari buruz, kimikaria laborategian ko-

aten aurrean egotea a hari aurre egin"



katzen nuen beti, baina gero errealitatea beste bat da, zeren eta, laborategian aritu ahal izateko, teoria handia ikasi behar baita, eta oinarritzko maila garrantzitsua lortu. Baina pozik nago.

Nolakoa izan da zure lan-ibilbidea?

Bost urteko lizentziatura zen eta bosgarren urtean laborategi batean sartu nintzen ikerlanak egitera, eta, bitartean, tesina egin nuen. Karrera 1989an bukatu, eta Eusko Jaurlaritzaren beka bat lortu

nuen doktoretza egiteko. Lau urteko beka izan zen eta ikerkuntza eta tesia egitea uztartu nituen denboraldi horretan. Nire espezialitateak dira Kimika Organikoa eta Kimika Fisika, eta tesia espektroskopiari buruz egin nuen. Donostiako Kimikako fakultatean irakasle ibili nintzen bi ikasurtean, eta 1999tik irakasle titularra naiz EHUKo Zientzia eta Teknologiako fakultatean, Leioan; Kimika Fisikoko departamentuko irakaslea naiz.

"Aita kimikaria zen eta bederatzi anai-arrebetatik bost kimikariak gara; ez dakit genetan-edo dugun..."

"Irakaslearen eta ikasleen harremanetik harago, askotan parekoen arteko harremana dago laborategian"

"Proiektuei dagokienez, batzuetan uste dut nirea administratzailearen lana dela, kimikariarena baino"

Ikerkuntzan ere bazabiltza; zein nahiago duzu: hura ala irakaskuntza?

Ezin dut aukeratu, biak izugarri gustatzen zaizkidalako. Asko disfrutatzen dut irakasten, eta ikasgai teorikoak zein praktikoak irakasten ditudan arren, laborategiko lana nahiko inportantea da, praktikak ematen baitituz lehenengo eta hirugarren mailetan. Gainera, gaur egungo metodologia dela eta, askoz harreman estuagoa dugu ikasleekin eta, irakaslearen eta ikasleen harremanetik harago, askotan parekoen arteko harremana da. Eta polita da. Bestalde, esan behar dut gaur egun ikerkuntza gutxi egiten dudala, zeren, laborategiko lanaz gainera, ikerkuntzari lotutako beste alderdi batzuk ere kudeatu behar diren, eta ez dago horretarako denbora askorik: ikasi, artikuluak idatzi, proiektuak eskatu, txostenak egin, ekonomia kudeatu... Proiektu baten atzean zientifikoa ez den lan handia dago, eta batzuetan pentsatzen dut, kimikariaren lana baino, nirea administratzailearen lana dela.

Zuretaldearen arloa espektroskopia da, zer ikertzen duzue?

Argiaren eta materiaren arteko el-karreragina ikertzen dugu, koloratzaile

“Egun irakasleok ez dugu hainbeste denbora laborategian ematen, baizik artikulatuak idazten, dirua eskatzen...”

“Ikasleak oso inportanteak dira eta asko gustatzen zait konturatzea beren heziketan parte hartu dudala”

“Unibertsitaterako joera berrikusi beharko genuke, eta ikasle batzuk beste ikasketa batzuetara bideratu”

fluoreszenteak oinarri ditugula. Koloratzaile horien erabilerak aldatu dira denboraren poderioz. Adibidez, ni arlo honetan hasi nintzenean, laserrak lortzeko erabiltzen ziren eta gaur egun hainbat esparrutan erabili daitezke: zelula fotovoltaiakoetan, eguzkiaren argia xurgatzeko eta ahalmen hori eraginkorragoa izateko, nanotransportatzaile moduan, minbiziaren kontrako terapietan...

Zer gustatzen zaizu gehien ikerkuntzatik?

Gauzak deskubritzeko erronka. Ikerkuntza oso zoragarria dela pentsatu liteke, dena berri-berria dela, pizgarritz betea... Baina atzean lan handia dago eta batzuetan lan hori nekoso da, eta aspergarria... behin eta berriro saiatu behar delako. Nolanahi ere, niri erronkak gustatzen zaizkit, zerbait ezezagun baten aurrean egon eta hari aurre egin.

Baliabide nahikorik duzue ikertze-ko?

Dirulaguntza jasotzea gero eta zailagoa bada ere, gure taldeak suete izan du beti: beharbada, ez dugu eskatutako dirukopuru osoa lortu, baina zati bat bai, eta horren arabera moldatu dugu ikerketa. Ez dugu inoiz dirurik eza izan. Horri dagokionez, gure alde esan behar da emaitzak izan ditugula eta asko publikatu egin dugula. Beste aldetik, talde txikia gara, baina elkarlanean gabiltza beste unibertsitate batzuetako taldeekin. Gero, ikasleak ditugu laguntzen eta “lan zikina” aurrera ateratzen. Izan ere, lehen aipatu dudan moduan, gaur egun irakasleok ez dugu hainbeste denbora laborategian ematen, baizik artikulatuak idazten, dirua eskatzen, ikasleen tesiak edo gradu amaierako lanak bideratzen...

Ikertzaile berriak heztean atsegingarria da?

Oso. Ikasleak oso inportanteak dira niretzat eta asko gustatzen zait konturatzea haiengana ailegatu naizela eta

beren heziketan parte hartu dudala. Ikaslerik onenak ditugu eta harro egon behar dugu horretaz. Alabaina, nire ustez, batzuk unibertsitatera etortzen dira joera naturala delako: lehen hezkuntza, institutua eta unibertsitatea. Ez daude behar bezain motibatuta eta neketsua da, bai haientzat, lan handi-handia egin behar dutelako, bai guretzat, haiengan grina piztea kostatzen zaigulako. Agian, unibertsitaterako joera hori berrikusi beharko genuke, eta ikasle batzuk beste ikasketa batzuetara bideratu, adibidez, heziketa-zikloetara. Oraindik jarraitzen da pentsatzen ikasle ona unibertsitatera bideratu behar dela, eta hain ona ez dena lanbide-heziketara, eta hori ez da inondik

ere horrela. Gainera, heziketa-zikloetako ikasleek aukera handiagoak dituzte lana topatzeko.

Zeintzuk dira zure helburuak edo planak?

Ez dut helburu handirik: nagoen moduan jarraitzea, oso gustura nagoelako eta egiten dudana pila bat gustatzen zaidalako. Garaia zein den, lan handiagoa edo txikiagoa dut eta orain denak emanda nabil irakaskuntza-arloan: eskola-saio teoriko eta praktikoa asko eman, eta horiek prestatu, ordu bateko eskola-saio baten atzetik ordu askoko lana dagoelako, eskola-saioak emateko modua berriro, metodologia berria sartu, etengabe ikasi, ikasleek egindako lanak zuzendu...





Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



	B1 Erabiltzaile independentea	B2 Erabiltzaile aurreratua	C1 Erabiltzaile gaitua	C2 Erabiltzaile aditua
Euskaltegietak ikasleen deialdia B1 B2 C1 C2	Idazmena: maiatzaren 6an Mintzarena: ekainaren 23tik 25era	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 30etik uztailaren 2ra	Idazmena: maiatzaren 4an Mintzarena: uztailaren 7tik 9ra	Idazmena: maiatzaren 4an Mintzarena: Ekainaren 23tik 25 era
Deialdi irekia B1 B2 C1 C2	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra	Idazmena: maiatzaren 5ean eta 6an Mintzarena: ekainaren 23tik uztailaren 9ra

Matrikulazio epea: **Apirilaren 4tik 12ra**

Informazio gehiago: **habe.euskadi.eus**



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrri.eus

Crowdfunding-kanpaina, Marikobaso sortzen laguntzeko

Derioko elkarte, talde eta herritar guztientzako lekua da Marikobaso Espazioa eta zutabe nagusitzat ditu kultura, euskara, feminismoa eta ekologia. Auzolanean egiten dabiltzan proiektua da eta egoitza Urkiola kalean kokatu dute, seigarren zenbakian. Autokudeaketan oinarritutako proiektua ere bada, eta otsailaren 28tik apirilaren 8ra bitartean crowdfunding-kanpaina egingo da hura finantzatzeko laguntzeko.



t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Marikobaso

Marikobaso Espazioa Derioko hainbat elkartek, taldek eta pertsonak ipini dute martxan, eta haien artean daude Tximintx komunitatea, San Isidro jai-batzordea eta Koxak talde feminista. Ane Lopez eta Gontzal Jauregi egitasmoaren sustatzaileetako bi dira. Azaldu digutenez, momentu honetan Marikobaso Espazioa gauzatzeko prozesuan daude. "Marikobaso Espazioa sortzen gabiltza Deriori

ekarpen berria egiteko asmoz. Herritarron elkargunea izatea nahi dugu, eta bertan kultura, euskara, ekologia eta feminismoa bultzatu". Elkartegintza indartzeko proiektua ere bada, eta herriko talde eta koadrila guztiei dago zabalik. Horrela, bada, nahi duten elkarteek lekua izango dute han, euren bilerak, tailerrak eta gainerako ekintzak jorratzeko.

Lerro hauek idaztean egoitza atontzen zebiltzan. Aipatu digute han, besteak beste, ikastaroak, hitzaldiak eta

"Herritarron elkargunea izatea nahi dugu, eta bertan kultura, euskara, ekologia eta feminismoa bultzatu"

proiektzioak egiteko aretoa ipiniko dutela, bileretarako gela eta partaideek eramandako liburuez hornitutako liburutegia. "Kanpoaldea erabiltzeko asmoa ere badugu, esaterako, kontzertu txikiren bat antolatzeko. Era berean, ekitaldiak eta egiteko, herriko beste toki batzuk erabiltzeko asmoa ere badugu, edota, adibidea ipintzearen, mendia garbitzera joan. Izan ere, egoitzatik bideratuko dira hainbat proiektu eta ilusio".

Autokudeaketa

Autokudeaketa oinarri izango dute Marikobaso egitasmoak berak eta bere gerizpean mamitzen diren ekintza guztiak. Egitasmoari diruz laguntzeko, kanpaina bi ipiniko dituzte martxan. "Alde bate-tik, crowdfunding-kanpaina egingo dugu otsailaren 28tik apirilaren 8ra bitartean webgune honetan: <https://www.itsulapikoa.eus/eu/proiektuak/marikobaso-espazioa>; eta bestetik, bazkidetza-kanpaina egongo da urte osoan". Kanpaina biei buruzko zehetasunak Marikobasoren gizar-te-sareetan kontsultatu ahalko da: Instagram, Facebook eta Twitter.

Esan moduan, herriko talde guztiek eta adin-tarte guztietako derioztarrek lekua izango dute Marikobaso Espazioan. Egitura horizontala egongo da eta erabakiak "era demokratikoan hartuko dira,



*“Marikobaso
zabalik dago, nahi
duena etor dadin parte
hartzera eta ideiak
ematera”*

elkarteen beharrianak asetzeko. “Hau gure beharrak asetzeko lekua da eta, beraz, nahi duguna egiten hasiko gara. Prozesuak berak eramango gaitu. Marikobaso zabalik dago, nahi duena etor dadin parte hartzera eta ideiak ematera. Eta ziur disfrutatuko duela, bere ideiak eta ekintzak jorratuko ditugulako. Nabarmendu nahi dugu hasiera-hasieratik hau auzolan-proiektua dela eta horrela izaten jarraituko duela: guztiok ekartzen ditugu ideiak eta ilusioak eta horrela egiten dugu aurrera”.

*“Hasiera-hasieratik
hau auzolan-proiektua
da: guztiok ekartzen
ditugu ideiak
eta ilusioak”*

Sustatzaile bien esanetan, oso egitasmo aberasgarria izaten ari da eta izango da, eta oro har erantzun ona jaso du. “Parte hartzea egongo dela uste dugu. Azaroan egitasmoa aurkeztu genuen eta jende nahikoa etorri zen. WhatsApp-taldea ere sortu dugu eta bertan 50 lagun baino gehiago gaude. Bestalde, zapatueta gelditu gara lokala guztion artean atontzeko, eta jendea etorri da laguntzera”. Lehenengo ekintza martxoaren 8an egingo da bertan, Ko-

xak talde feministak antolatua. Egun horretan, 18:00etan, *Booty Riots* dantza-tailerra izango da twerking-ari eta gorputzaren mugimenduari lotutakoa. “Marikobaso espazioaren inaugurazioa zapatu batean egingo da, oraindik data zehatzik ez dagoen arren. Egitasmoa zein izango den azalduko dugu, eta kontzertu xume eta txiki bat ere antolatuko da. Horrezaz gainera, euskarari lotutako ekitalditxo batzuk egingo dira martxoan, Marikobaso arigunea baita, eta talde-eragilea, arnagunea. Helburua da denboraren poderioz Marikobaso arnagune ere bihurtzea”.

Derioko eta Zamudioko lurretan dago Marikobaso auzoa, Bilboko hilerriaren eta aireportuaren artean. Egitasmoaren bidez, Derioko txokoetara zabalduko dira kultura, elkartegintza, ekologismoa, feminismoa eta euskara, eta, aldi berean, auzo bitxi hori herrigunera eramango da.

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mixtine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

Emakumeen Nazioarteko Egunean, ohi moduan, morez tindatuko dira kaleak emakumeen aldarrikapenak zabalatzeko, politika feministak eskatzeko eta berdintasunerantz oraindik pausoak egin behar direla adierazteko. Txorierrin ere aldarrikapen-ekitaldiak egingo dira. Otsaileko alean ixtean horietako batzuk jaso ditugu.

Garrasia Sondikako talde feministak elkarretaratzea antolatu du martxoaren 8rako Ikurrinaren plazan eta manifestua ere irakurriko dute. Aurrerago zehetasunak jakinaraziko dituzte. Koxak Derioko talde feministak ere ekintzak egingo ditu egun horretan. Horrela, bada, 16:00etatik 17:30era autoen karabana egongo da herritik, eta 18:00etatik 19:00etara Booty Riots dantza-tailerra, Itzikanen eskutik. Tailerra Marikobaso Espazioan izango da. Eguna biribiltzeko, Herriko plazan elkartuko dira 19:30ean.

Zapata Gorriak Zamudioko talde feministak gune feminista ipiniko du herriko zenbait txokotan. Azaldu dutenez, bertan emakumeen aldarrikapen historikoak erakusgai ipiniko dituzte, eta "mezuen gunea" sortu. "Herriko kirol-, kultura- zein gizarte-taldeei eskatu diegu bertaratzeke eta mezua jartzeko, baita talde politikoei ere". Gune feminista martxoaren 4an, 18:00etatik 20:00etara, izango da Lehendakari Agirre plazan; eta martxoaren 5ean, leku berean, 11:00etatik 14:00etara. Bestalde, martxoaren 8an, Leizaola plazan ipiniko dute 18:00etatik 20:00etara. Gune feministan "Zamudio feminista" ikurrak banatuko dira eta "Feminismoa eraikitzen" mezua idatziko da adreilu batean. Hori herriko denda, zerbitzu eta tabernetara eramango da, ikusgai ipini dezaten.

Martxoaren 8an, kontzentrazio-manifestaldia egingo dute 19:00etan Leizaola plazan hasita, eta martxoaren 22an "El debate sobre la prostitución en el feminismo" hitzaldia egongo da Teresa Maldonadoren eskutik, 19:00etan, Za-



Martxoak 8 Txorierrin

mudiotarren. Zamudioko Udalak ere elkarretaratzea egingo du martxoaren 8an, 12:00etan, Sabino Arana plazan.

Beste aldetik, Moreak Lezamako talde feministak elkarretaratzea deitu du martxoaren 8rako. Kale-agerraldia 19:00etan egingo dute herriko plazan. Horrezaz gainera, bertso-saioa antolatu da martxoaren 13rako. Saioa 12:30ean izango da plazan eta bat-batean arituko dira Onintza Enbeita, Oihana Bartra eta Josune Aramendi bertsolariak; gai-jartzaile Idoia Anzorandia ibiliko da. Era berean, Aursartak herriko emakumeen antzerki-taldeak *Celos y señales* obra aurkeztuko du martxoaren 11n, 19:00etan, Kultura Aretoan. Begoña Ausinek zuzenduko ditu antzezle lezamarrak. Ekitaldiak Lezamako Udalaren laguntzarekin antolatu dira.

Loiuko Udalak argazki lehiaketa antolatu du martxorako. Gaia berdintasuna izango da eta argazkiak martxoaren

ren 15etik 30era aurkeztu daitezke aurrez aurre edo emailaz (udala@loi.eus). Hiru sari banatuko dituzte: 200 euro irabazlearentzat, 150 euro bigarrenarentzat eta 100 euro hirugarrenarentzat. Martxoaren 8an, 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute Herriko plazan, eta adierazpen instituzionala irakurri.

Martxoaren 11n ekitaldi berezia egingo dute herriko bost ikastetxe kontzertatuetakoa ikasleekin. Gaztetxoak oinez abiatuko dira herriko plazara eta bertan elkarretaratzea egingo dute. Adierazpenak irakurri, eta giza-katea osatuko dute herriko kaleetatik. Musika ere egongo da. Martxoaren 12an, emakumeentzako bazkaria egingo, eta izena ematea udaletxean bertan edo emailaz egin daiteke martxoaren 8ra arte. Bazkaldu ondoren bilbainadak, omenaldia, kontzertua eta karaokea egongo dira.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Bizkargi Kafetegia

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Ursula
psikologoa

Psikologia & Neuropsikologia

644 649 752 ursula@cop.es
Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)
48930 Areta (Getxo)

“Ezinbestekoa da emakume langileak subjektu politikoa bilakatzea”

Emakume sozialisten sarea da Itaia eta duela urte bi sortu zen Euskal Herriko eragile moduan. Aurtengo ikasturtean antolakunde politikoa izateko saltoa egin du, eta taldeak sortu dira hamaika eskualdetan, baita Txorierri ere.



a: Txorierriko Itaia

“Egun, miseria ekonomikoak eta kulturalak definitzen dute emakume langileen egoera; beraz, gure egoera gaindituko duen proposamena garatzeko, gaitasun politikoak eskuratu behar ditugu, eta taldea zentzu horretan sortu genuen Txorierri”, azaldu digute Kattalin Barcenak eta Mider Bidaurrezagak. Horiek Txorierriko Itaiaren partaideak dira eskualdeko zenbait herritako neskekin batera. “Ezinbestekoa da emakume langileak subjektu politikoa bilakatzea, emakumerik gabe ez baitago iraultza sozial posiblea. Gure ustez, emakume langileak iraultzara lerratzea boteretze-prozesu erreala da”.

Txorierriko Itaia sortu, eta Emakume Langileon Eskola deituriko dinamika ipini zuten martxan. “Gaitasun teorikoak eta politikoak lantzeko gunea da, gure zapalkuntzaren auzia aztertu eta hari aurre egiteko tresnak sortzera begira”.

Horren harira, formakuntza-saioak eta eztabaidarako saioak antolatu dituzte. Azaroak 25 zela eta, esaterako, hausnartu zuten “indarkeria matxista gaur egungo gizarte kapitalistan hartzen ari den forma berrien inguruan” eta horri aurre egiteko proposamen kritikoak ere landu zituzten.

Barcenaren eta Bidaurrezagaren esanetan, emakume langileen egoerak okerrera egiten du egunez egun, eta pandemiak areagotutako krisi kapitalistaren testuinguruan nabarmena da bizi-baldintzak kaskartuz doazela. “Alde batetik, agerian da lan-baldintzek txarrera egiten dutela: kaleratzeak, soldatak jaistea, lan-zama handitzea, lan partzialak, behin-behineko lanak...; eta bestetik, Estatuak zein administrazio publikoek gero eta zerbitzu gutxiago bermatzen dituzte eta, hortaz, zaintza-lanen karga emakume langileengan areagotu egiten da”.

Komunikabideen eta gizarte-sareen erantzukizuna ere azpimarratu dute. “Ema-

kumeon hipersexualizazioa eta indarkeria matxista normalizatzen dute, eta garapen teknologikoak indarkeria-mota berriak ekarri ditu: sare sozialen bidezko erasoak, jazarpenak, kontrol soziala areagotzea...”. Era berean, adierazi dutenez, “jendartea gero eta feministagoa dela dirudien arren, emakume langileon bizi-baldintzek txarrera jotzen dute eta instituzioek sarritan feminismoa erabiltzen dute euren burua zurrizteko, gure zapalkuntza gainditzeko proposamen errealek egin gabe”.

Eztabaidarako guneak

Azaldu diguten moduan, Txorierriko Itaiaren eginkizuna da sozialismoa eraikitzea. “Hau da, zapalkuntzak inolako funtziorik ez duen gizarte bat eraikitzea, eta, halaber, gizarte kapitalista oso-osorik gainditzeko gaitasuna izango duen proiektu politiko bat garatzea eta haren parte izatea. Horri lotuta, eta gaurdanik hasita, deitzen dugu zapalkuntzei aurre egiteko eta gaitasunak handitzeko antolatzea eta hainbat borroka piztera”. Helburuari heltzeko, formakuntza-saioak eta eztabaidarako guneak antolatzeko asmoa dute, “gure gaitasun teorikoak eta politikoak garatzeko zein elkar ezagutzeko eta antolakuntzara batzeko”.

Horrela, martxoaren 5ean, 17:00etan, emakumeen sexualizazioaren areagotzeari buruzko solasaldia egingo dute Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean. Ondoren, kopaua eta Sua taldearen kontzertua izango dira. Azkenik, Itaiak martxoaren 8rako egindako mobilizazio-deiarekin bat egingo dute. “Bilbon, 18:30ean, Indautxu plazatik aterako den manifestazioan parte hartzeko deia egiten dugu”.

*“Pandemiak
areagotutako krisi
kapitalistan nabarmena
da bizi-baldintzak
kaskartuz doazela”*

Lehen arretoa ere badabil gainezka

Urte bi pasatu dira pandemia gurera etorri zenetik. Olatuak eta olatuak gaintitu ditugu eta badirudi apurka-apurka birusaren eragina gero eta txikiagoa dela. Osasun-langileek ere ez dute ondo pasatu: protokolo aldakorak, langile-kopuru gutxi eta gaixo asko eta asko. Gainezka ibili dira eta gaur egun gainezka jarraitzen dute.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Lezamar guztiek ezagutzen dute Jose Mari Uribarri, bertako medikua. Galdakaoztarra Loion bizi da eta azken 30 urteotan Osakidetzan ibili da familia-mediku moduan lanean; horietako azken hiru urteotan Lezaman. Herri horretako anbulategian Itxaso Agirre sopoloztarrak ere egiten du lan. Erizainak 20 urte daramatza Osakidetzan: Gorlizko ospitalean, Algortako anbulategian eta azarotik Txorierri. Biek artatzen dituzte Lezamako gaixoak, gaixotasunen kontra lehenengo defentsa-lerroa dira.

Bien esanetan, "pozik" daude Txorierri, baina Lezama bezalako herri txiki batek alde onak eta txarrak dakartza. "Herri txiki, infernu handi, telebista-saioak dioden bezala (kar-kar). Hurbilak gara eta paziente guztiak ezagutzen ditugu: norberaren nortasuna, gaitzak, familia... Okerrena da bakarrik gaudela, hau da, zerbait gertatzen bada zuk zeuk konpondu behar duzu: berogailua apurtzen bada, txoria leihotik sartzen bada, alarmak jotzen badu...", esan du medikuak. "Edo etxez etxeko larrialdiren batera joan behar badugu, anbulategia itxi egin behar dugu eta kartel bat jarri, jendeak jakiteko laster itzuliko garela.

Gainera, ezin diezu lankideei zalantza baten inguruan galdetu, lankiderik ez dagoelako. Telefonoz norbait deitu ahal diozu, baina eguneroko hurbiltasun hori falta zaizu", gaineratu du erizainak.

Azken urte biotan, COVID-19ak baldintzatu egin dizkigu bizitzaren arlo guztiak: harremanak, lana... Eta lehen arretoa langileak horren lekukoak izan dira. "Gure lan egiteko modua erabat aldatu da. Esate baterako, Txorierri mailako erizainekin eta medikuekin bilerak egiten genituen eta horiek, pandemia zela-eta, bertan behera utzi behar izan genituen. Batzarrak oso lagungarriak dira: iritziak elkartrukutzen ditugu, protokoloak eztabaidatzen ditugu, elkarri aurkeztu dizkiogu proiektuak... Horren haritik, WhatsApp talde bat sortu dugu eta gaur egun horren bidez egiten dugu berba. Dena dela, laster bilera presentzialak berriro egitea espero dugu", azaldu digu Uribarri.

Pandemiak batez ere arazo bi ekarri dizkie lehen arretoa langileei. "Batetik, gaixo kronikoak, jarraipena egitea zaila izan delako pandemiaren ondorioz, hitzordu presentzial batzuk galdu direlako. Eta horiek beharrezkoak dira pazienteak zelan dagoen behar bezala ikusteko. Bestetik, minbizia. Jendeak



min izan du, guri telefonoz deitu, baina prozesua atzeratu egin da; eta diagnostikoa ere bai", adierazi du Uribarri.

PCRak, komunean

Itxaso Agirrek uste du leku gehienetan "antzerka" bizi izan dutela pandemia. "Gu lanean gainezka ibili gara; eta pazienteak, beldurtuta, etxetik atera nahi izan ez dutelako", laburbildu du. "Lan asko telefonoz egin dugu. Telefonoz gauza batzuk ondo kudeatu ditugu, baina beste gauza batzuk, ez, ordea. Paziente batzuek hona etorri behar dute, esate baterako, zauriak zuzenean artatu behar direlako. Eta gauza batzuk ihes egin zaizkigu, noski, batzuetan COVID-19a baino ez delako egon. Horren haritik, kontsultak

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txoriari etorbidea, 5-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euzkadi.net

Familia osorako
kalitatezko arretoa,
zure esku

Zerbitzu Berrak:
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriari etorbidea, 9 - Lortze | Ansoaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



*"Arazo bi izan ditugu:
gaixo kronikoei
jarraipena egitea;
eta minbizia garaiz
antzematea"*

*"Gaur egun guztiok
gabiltza nekatuta:
bai medikuok
eta erizainok, bai
pazienteak. Normala da"*

Osakidetza oro har ere badabil gain-
ezka, osasun-langile horien esanetan,
zerbitzuari baliabideak kendu dizkio-
telako, baita pandemia etorri baino le-
hen ere. "Algortan, bosgarren olatua
bukatutzat eman zutenean, aztarnarien
herena baino ez zuten mantendu; gaine-
rakoak, kalera; eta seigarren olatua
etorri zenean, ez zuten langile kopuru
bera kontratatu. Beraz, euren lana geuk
egin behar izan genuen. Langilerik eza
nabarmena izan da", esan du Itsasok.

"Eta horregatik –dio Jose Marik–,
hainbat eta hainbat ordu inbertitu be-
har izan ditugu gure lana ez den zer-
bait egiten, batez ere kudeatzeari da-
gokionez: telefonoa hartu, argibideak
eman, galderei erantzun, bajak egin,
COVID pasaporteak kudeatu... Pentsa
ezazue zenbat galdera sortu diren la-
gunen eta senideen artean horren ha-
ritik; kopuru hori bider 2.000 lezamar
biderkatu (kar-kar). Eta protokoloaren
berri mila aldiz eman eta gero, hurrengo
asteen, protokoloa aldatu egin izan du-
te. Ahal izan dugun moduan, ahalik eta
ondoan saiatu gara lan egiten, baina zer-
bitzua okerragoa izan da".

leihatilaren bidez egin ditugu; PCR pro-
bak, komunean egiten ditugu, beste
lekurik ez dugulako; eta antigenoak an-
tzemateko probak, etxeko atarian egin
ditugu, anbulatorioko aparkalekuan, au-
totik atera barik...."

Horren aurrean, "zorionez", jendea ez
da kexatu. "Agian aukera handirik izan ez
dutelako: edo komunean edo Urdulizera
(kar-kar). Guztiok egokitu behar izan
dugu egoera zail honetara, eta pazien-
teek primeran jokatu dute. Esate batera-
ko, anbulatorioaren leihatilak beti ireki
izan ditugu, eta izugarrizko hotza pasatu
dugu. Gaur egun guztiok gabiltza ne-
katuta: bai medikuok eta erizainok, bai
pazienteak. Normala da. Olatuak bata
bestearen atzean etorri dira, eta nekatu

egin gara. Hala ere, jendeak zintzo jokatu
du eta egoeraren larritasuna ulertu du",
esan du Agirrek.

Lezamako lehen arretako langileak
gainezka ibili dira azken urte bietan. Eu-
ren esanetan, ez dute ezta kafesne bat
hartzeko astirik ere izan. "Jendeak uste
du pazienterik bulegoan ez dagoenean,
ez dugula ezertxo ere egiten, baina hori
ez da egia; normalean gaixo batekin ga-
biltza berbetan telefonoz, esate baterako.
Egun askotan gure ordutegia gainditu
egiten dugu, gaixo guztiak artatzeko. Eta
batzuetan, hainbeste lagunek deitzen
dutenez, telefonoa blokeatu egin da.
Eta herritar batzuk oso haserre etorri
zaizkigu anbulatoriora, telefonoa hartzen
ez dugulako. Baina ezin dugu ezer egin".


tik tak
EGUNEKO MENUA
lehenengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria
9€
T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai lezazuna Facebook-en


LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orduraren
Auzokas komunitateak
Muntzako garbi-ikusiak
Bulegoak eta ikusak
Oroin emateko garbiak
Ikusketak
Zahar bilaketa
Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Emakumeen arteko elkartasuna



t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Ondasun materialak doan eskuratzeko eta emateko gunea da Gure Dona? egitasmoa, eta Zutunik! Larrabetzuko talde feministak martxan ipini zuen 2020ko irailean. Proiektuaren bidez balio hauek sustatu nahi dituzte: antikapitalismoa, ekofeminismoa eta deshazkundera, elkartasuna prekaritatearen aurrean, eta emakumeen eta pertsona ez binarioen arteko laguntza. Lur Fernandez Fernandez eta June Fernandez dira egitasmoaren sustatzaileak; Uxue Hernandez, erabiltzaileetako bat.

“Desazkundera Bilboko elkartearen ibilia nintzen, eta Larrabetzura etorri nintzenez buruan nuen berton ere gune fisiko bat sortzea, jendeak nahi zuena emateko eta behar zuena hartzeko. Zutunik! sortu genuen eta egitasmoa atzeratuz joan ginen, baina June agertu zen eta lanean hasi ginen”, kontatu digu Lur Fernandezek. “Larrabetzura 2020an ailegatu nintzen Bilbotik, pandemia hasi baino hilabete bat lehenago. Ume txikia dut eta konfinamendu perimetrala zela-eta ezin ginen herritik atera; gainera, ez nuen berton jende asko ezagutzen. Arropa nuen beste batzuei emateko, eta beharrak

ere bai; hortaz, pentsatu nuen ondo le-gokeela talde bat sortzea, herritarrek gauzak diru barik eman eta eskuratzeko”, gehitu du June Fernandezek. Egoera biak batu, eta Gure Dona? egitasmoa mamitzen hasi ziren udan.

WhatsApp taldea sortu zuten eta gaur egun 137 erabiltzaile dira. “Edozein gauza eskaini daiteke: arropa, liburuak, altzariak, jostailuak, fardelak... Eta behar dena eskatu. Gainera, mailegu puntualak ere egin daitezke, adibidez, alkandora bat bakarrik Olentzero Egunean janzteko edo bihurkin elektriko bat. Ideia da dirurik ez dagoen komunitatea sortzea. Eta, jakina, hartzen dena ezin da gero beste bide batzuetatik saldu”. WhatsApp taldean bertan eskaintzen dira artikulua edo egiten dira eskariak; emateak-eta modu pribatuan kudeatzen dira gero.

“Edozein gauza eskaini daiteke doan: arropa, altzariak, jostailuak... Eta behar dena eskatu”

Ahizpatasuna

Emakumeentzako ekimena da, ahizpatasunean oinarrituta. “Izan ere, ideia Zutunik! elkartearen baitan sortu da eta emakumeen arteko elkartasuna sustatu nahi genuen, baita taldea emakumeentzako gune segurua izatea ere”. Erabiltzaileen profila era askotakoa da. “Batzuk oso egora ezegonkorrean daude eta haientzat laguntza da gauzak doan eskuratu ahal izatea. Herriko betiko jendea ere badago, heldu berriak, etorkinak... Proiektuaren onuretako bat da elkar ezagutzea erraztu digula”. Horren harira, Uxue Hernandezek aipatu du egitasmoari esker jabetu dela inguruko egoeraz. “Baliagarria izan da begiak zabaltzeko, taldean sartu arte ez naizelako nire inguruan dauden beharrezko konfiantza izan. Askok lagundu dit pertsona moduan”.

Eskuzabaltasuna da egitasmoaren beste onura bat. “Erabiltzen edo behar ez ditudan gauzak plataforma batean salgai ipintzen baditut, dirua lortuko dut; hala ere, nire gauzak taldean doan eskaintzeak beste gauza sinboliko batzuk ekarriko dizkit, esaterako, beste pertsona batzuei laguntzea. Era berean, egitasmoak emakumeen arteko konplizitatea sortu du, berriak garenok taldeari esker ezagutu baitugu jende asko eta, bestalde, gure artean agertu baitira detaileak, tratua onak, samurtasuna... Auzokideon arteko konfiantza handitzeko ere bada baliagarria”. Sustatzaileen esanetan, ekologismoaren aldetik ere bada proiektu mesedegarria. “Konfinamendu perimetralean Amazoneko furgoneta asko ikusi ziren herrian. Noski, ezin da herritik atera eta gauzak behar dira; baina oso eredu ezberdinak dira: bata online da eta eragina du naturan eta ekonomian, eta bestea

“Onurak, besteak beste, dira eskuzabaltasuna, elkar ezagutzea, emakumeen arteko konplizitatea...”

burujabetza da: esan zer behar duzun eta emango dizut”.

Etorkizunari begira, egitasmoa haztea nahi dute. “Denbora-bankua izatea gustatuko litzaiguke; hau da, gauza materialiez gainera, zerbitzuak ere ematea: argiketaria naiz eta lana doan egingo diot behar duenari, eta niri ere zerbitzu bat edo bestea egingo didate behar dudanean. Itxura eman behar diogu horri”.

Noka

Larrabetzuko egitasmoa da eta parte-hartzaile gehienak larrabetzuarrak dira, baina inguruko herrietako partaideren bat ere badago, herriarekin lotura duelako. “Sondikako lagun batek bertan ere gurearen moduko talde bat martxan ipintzeko interesa agertu du. Egia esan, beste helburu bat izango litzateke Txorierriko gainerako herrietan ere taldea sortzea”. Azaldu diguten moduan, Gure Dona? hitz-jokoa da. “Kide batek proposatutakoa da. Antza, Larrabetzun noka erabiltzen zen lehen eta keinua egin diogu horri, nahiz eta guk aukeratutako izena zuzen-zuzena ez izan”.



TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



Urtebete Txorierrin



t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Urtebete bete da Emaus Gizarte Fundazioaren PAI Bitartean eguneko zerbitzua Derion martxan ipini zenetik, eta zerbitzuko arduradunok oso positiboki baloratzen dugu Txorierrin egindako lehen urratsak. Komunitate-lanari esker, zerbitzuak modu egokian egin du inguru-nearekin eta herritarrekin bat. Pandemia egonda, hainbat zailtasuni egin behar

izan diegu aurre, eta lanean gogor ibili gara, gizartetik kanpo dauden edo egoiteko arriskuan dauden pertsonen atea zabaltzeko eta, era berean, gure lana herritarrei ikusarazten saiatzeko.

Kanpoko eragileekin izandako lankidetzek lana erraztu digute. Bagenekien inportantea zela inguruko kontaktuekin sare estua osatzea eta indarrak ideia horretan batu ditugu hasiera-hasieratik. Emaizta oso pozgarria da, harreman estua

dugulako Derioko Udalarekin, Txorierriko Institutuarekin, Adarve tabernarekin, Baserri Antzokiarekin eta Arteaga estankoa-rekin, batzuk aipatzearren. Lan-ildo horri jarraitzeko asmoa dugu, beraz, espero dugu elkarlana handituz joatea.

PAI Bitartean eguneko zerbitzura etortzen diren pertsonen eta herritarren arteko harremana normalizatzeko, era askotariko ekimenak sustatu ditugu: hitzaldiak, erakusketak, gizarte-ekitaldiak, tailerrak... Ekimen batzuek jarraipena dute, hala nola herriko kiroldegian astero kirol eta pala egokituko saioak egitea, Ganbara Gizarte Irratian astero jasotzen ditugun gonbidatuak eta Emaus Gizarte Fundazioak hilero Aikor! aldizkarian artikulua bat idaztea. Bestalde, noizean behingo ekintzei dagokienez aipa ditzakegu, PAI Bitartean programa aurkezteko, Kultur Birikan egindako erakusketa eta hitzaldia, Martxoaren 8ari eta Liburuaren Egunari lotutako ekimenak eta jostailu solidarioak batzea.

Laburbilduz, Emaus Gizarte Fundazioako ordezkariak oso eskertuta gaude herrian izan dugun harreragatik eta gure lanak izan duen esker onagatik. Hala, ilusio eta motibazio handiz ekingo diogu bigarren urte honi, eta espero dugu Txorierrin eta bere jendea ezagutzen jarraitzea.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

ZAMUDION BERTAN GAUDE

BAIRES
Higienizazioa eta ingurumen-garbiketa

Alberto Gainza:
691606715
contacto@baires.es
www.baires.es

Salbia, nahitaezkoa emakumeen botikinean



t: Txiribita / a: www.admagazine.com)

Salvia officinalis. Hosto lantzeolatuak, berdeak eta belusatuak dituen zuhaixka aromatikoa da. Bere loreak urdin-mo-reak dira. Landare apaingarri moduan erabiltzen da eta, hortaz, ohikoa da baratze eta lorategietan topatzea. Sukaldaritzan erabiltzeko, hobe da kimu gazteen hostoak, samurrenak eta freskoenak direnak, loratu baino lehen biltzea; erabilera sendagarrietarako, loratu ondoren hartu daitezke hostorik zaharrenak.

Sukaldean:

Frantziako hegoaldeko sukaldaritzan asko erabiltzen diren belar proventzarretako bat da; berton ez dugu salbia erabiltzeko ohitura handirik, eta pena da, zeren eta zapore bizia, usaintsua eta apur bat mina ematen baitie zopa, saltsa eta kremei.

- Ezinbestekoa da saldak eta erregosiak aromatizatzeko erabiltzen diren belar usaintsuen nahasian (*bouquet garni*).

- Hosto txikituak erabili daitezke entsaladetan eta gazteekin eta ozpinetakoekin.

- Gurina aromatizatzeko erabil daiteke, eta arraina, haragi gorria, hegaztiak eta pasta prestatzeko.

Erabilera sendagarriak:

- Bizigarria da, eta, beraz, egokia nekeari eta gaixondoari aurre egiteko.

- Digestio-gaitzak: bizigarria da, digestio-laguntzailea eta tonikoa. Okadak, haizeak, beherakoa eta sabel-mina arintzen ditu.

- Odoleko azukrea erregulatzen du.

- Gaitz ginekologikoak: fitoestrogenoetan aberatsa da, eta erabilgarria, menopausiak sortutako ondoezei aurre egiteko. Hilekoa erregulatzen du, eta mina arindu.

Erabilera kosmetikoak:

- Azalaren gaitzak: azala desinfektatzen eta orbaintzen du. Erabili daiteke aknerako, zaurietarako eta ondoetarako. Hostoekin egindako infusio kontzentratua erabilia garbitu daiteke azala.

- Gehiegizko izerdia: hostoak erabili daitezke garbiketarako eta bainurako, eta gauean infusioa hartu.

- Lagungarria da ahoa osasuntsua izateko, eta infusioa erabilia gargarak eginez

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeke, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

gero, eztula eta eztarriko azkura arintzen ditu. Hostoa hortzetako pasta moduan erabiliz gero edo mastekatzen badira, hatsa eta hortzak garbitzen ditu.

- Ilea sendotzen du: ilea garbitu ondoren hura hosto-infusio kontzentratu batez eragin dezakegu, edo salbia-ozpina erabilia.

Bitxikeriak:

Antza, bere izena latinetik dator eta "salbatzea" adierazi nahi du. Erromatarrek sugeen ziztaden aurka erabiltzen zuten, baita gorputza eta gogoa suspertzeko ere.

Kontraindikazioak:

Infusioei dagokionez, tratamenduek ez dute hilabete bat baino gehiago iraungo. Era berean, ez da gomendagarria haurrek eta haurdun dauden emakumeek edo titia ematen dabiltzanek hartzea, esnearen ekoizpena eten egiten du eta; hala ere, erabilgarria da titia kentzeko.



t: Xabier Diaz / a: Engin Akyurt (Pexels)

Bihotza

Artikulu hau idazten nabilela, San Balendin eguna da; bihotzak nonahi telebista eta sare sozialetan... Egia esateko, ez ditut horrelako ospakizunak oso gogoko eta sare sozialetan jartzen diren bihoztxo horien oso zalea ere ez naiz. Maite dituzun horiek zaintzeko horrelako egun eta parafernaliaren beharrik badaukagu, jai dugu. Azaldu da nire barru-barruko murrutuna... Baina bihotzaz ari garela, badaude horretaz arduratzeko beste arrazoi batzuk. Izan ere, zirkulazio-sistemari lotutako gaixotasunak dira emakumeen heriotzen kausa nagusia; bigarrena gizonezkoengan.

Bihotza elikatzen duen arterietako bat buxatzen denean, ez zaio behar beste

odol iristen eta elikagai eta oxigeno barik gelditzen da; arteria laster libratzen ez bada, muskulua hil egiten da. Arrazoiak batez ere sortzetikoak eta ohiturakoak dira. Sortzetikoei dagokienez, ezer gutxi egin daiteke; ohitura egokiak izatea da, beraz, arriskua murrizteko aukera bakarra.

Egungo tratamenduak dira tronbolitikoak, koaguluak disolbatzen dituzten botikak, eta stent-ak ipintzea. Azken horiek hodi-formako saretxoak dira: arterian sartu, zabaldu eta odola berriz hortik pasatzea ahalbidetzen dute. Baina zer egin, kaltea eginda badago eta bihotzaren zati bat "hil" bada?

Oso kaltetuta badago, aukera bakarra transplantatea egitea da. Nahiz eta 1967tik egiten den, ez da ebakuntza erraza eta, gainera, emaile egokia topatu behar da. Oztopo hori gainditu guran, orain dela gutxi gizon bati txerri baten bihotza transplantatu diote, eta nahiko ondo irten dela ematen du oraingoz. Hori bai, txerria genetikoki eraldatu behar izan zen, gizonak organoa arbuia ez zezan.

Aspalditik, gizaki-zelulak laborategian hazteko gai gara. Orduan, zergatik ez gure gihar-zelula batzuk hartu, laborategian hazten jarri, eta behar dugun ordekoa osatzen denean kaltetuta dagoen zatia ordez ipini? Gure zelulak dira, ez digute arazorik eragingo... Hala ere, ez da horren erraza, gihar-zelulak ezin direlako edonola hazi edo eragin. Eratu ahala, beharrezkoak diren egiturak eta odol-hodiak ere hazi behar dira, horiek barik ez bailukete beren funtzioa beteko.

Orain dela gutxi, Tel Avivko Unibertsitateko ikerlari-talde batek 3D inpresio-teknikak erabiliz arazo hori gainditzea lortu du. Horretarako "omentu-a", peritoneoan dagoen mintz moduko bat, garbitu eta euskarri gisa erabiltzen da. Software bat erabilita, lortu nahi den forma diseinatzen da, egiturak, ehunak, odol-hodiak.... Eta 3D inprimagailura bidaltzen da.

Plastikoa, egurra edo beste osagai batzuk erabili beharrean, 3D inprimagailuak hartzailearen zelula-amak erabiltzen ditu. Egituren ezartzean, eta aurretik egindako diseinuaren arabera, gihar, odol-hodi edo behar den zelula-mota bihurtuz joango dira zelula-amak eta lortu beharreko egitura konplexua osatuko dute. Hartzailearen zelulak direnez, ez da arbuiorik egongo eta murriztuko dira ebakuntzaren ondorengo arriskuak.

Bioteknologiak lagundu dezakeen arren, tartean emaileak behar ditugu, eta Euskal Herrian zentzu horretan harro egon gaitezke, bai, baina, kontuz: kopurua jaisten ari da.

Teknologiak teknologia, izan zaitez emaile.

(1) Euskal AEko heriotzak % 2,7 gehitu dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan, Eustat, 2022/02/14 <https://labur.eus/aikorbihotz1>

(2) Gene Therapy for the Heart Lessons Learned and Future Perspectives, Antonio Cannatà, Hashim Ali, Gianfranco Sinagra, Mauro Giacca, Pubmed, 2020/05/08 <https://labur.eus/aikorbihotz2>

(3) Bihotz transplantatea, Wikipedia, <https://labur.eus/aikorbihotz3>

(4) Txerri baten bihotza transplantatu diote gizon bati AEBn, EITB.eus, 2022/01/11 <https://labur.eus/aikorbihotz4>

(5) How to regenerate a functional heart using 3D printing, Marta Irigoyen, mappingignorance.org, 2022/02/7 <https://labur.eus/aikorbihotz5>

(6) Omentu, Wikipedia, <https://labur.eus/aikorbihotz6>

(7) Organo emaileen kopuruak behera egin du, berria.eus, 2021/08/15 <https://labur.eus/aikorbihotz7>

Elebitasun egonkorrik ez dago

Atlantiko eta Pazifikoko urak ez daude beti banatuta



a: Allan Watson (www.pexels.com)

t: Juan Luis Goikoetxea

Baliteke Euskal Herriko biztanle askok uste izatea euskara eta erdara itsaso bi direla, Alaskako Golkokoan elkarrekin topo egin arren nahasten ez direnak, beti kolore desberdinekin irauten dutenak. Bruland ikerlariak erakutsi zigunez, ordea, Alaskako urak honenbeste egun edo aste garrenean batu eta nahasi egiten diren antzera, euskara erdararekin –gaztelara edo frantsesarekin– matxinbratu egin daiteke.

Horrexegatik da beharrezkoa murgiltzea, ze elebitasuna ez denez iraunkorra, behar-beharrezko dira orekatze-neurriak. Bestela, hiztunik gutxien daukan berbeta, mugatuena, hau da, hizkuntza minorizatu desagertu egingo litzateke.

California-Santa Cruz unibertsitateko Itsas Zientzietako Bruland irakasleak

dioskunaren arabera, glaziarretako urak ozeanokoekin nahasten dira, banatuta egon eta gero baturik. Ondorioz, dentsitate, temperatura eta gazitasun desberdinek eragindako koloreak ere desagertu egiten dira.

Bestalde, batu aurreko egun edo asteetan, kolore desberdineko ur masa biak elkarren parean daude, ezker-eskuin. Hizkuntzetan, berriz, bata goian jartzen da eta bestea behean, alegia, gaztelara edo frantsesa direnean nagusi, elebitasuna baino diglosia soziala sortzen da, hegemonikoa goian dela. Hori gerta ez dadin, murgiltzea ezinbestekoa da, gogoan izan behar dugulako lurralde berean bizi diren hizkuntza bi ditugula bizirik, eta maila berean behar ditugula.

Elebitasun sozialera barik elebitasun indibidualera bagatoz, murgiltze linguistikoa da berbeta ikasteko tresnarik ego-

kien eta azkarrena. Beraz, aholkurik eraginkorrena da bizitzeta ikasten ari zaren hizkuntza horretan.

Murgiltzeaz ari garelarik, Txorierriko uretara bagatoz, ohar gaitezke nola erdararen itsasoan murgilduta bizi garen. Hala ere, eskatzen duguna da umeak euskaraz murgildu daitezen eskola, ikastola, ikastetxeetan. Berez, eman ditugu jadanik irakaskuntzako murgiltzerako arrazoiak. Ostera, ezer gutxi aipatu ohi da erakundeetako murgiltzeaz, udal-txeetako osoko bilkurak euskaraz egiten murgiltzeaz, elizetan mezaren bat euskara hutsean ospatzeaz. Hau da, adinekoak ere murgiltzeaz.

Badirudi erdararen itsasoan murgilduta ibilirik, euskaraz surfeatu baino ez dela egiten; euskal itsasoko uretan hotz garela, eta erdal ozeanoa bero bezain epel.

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

XURREGOITI
JATETXEA

Laurgoita etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaiak
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantexurregoiti.com

elekma

URRATZEAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK

Lehenengo markak • Preziozko onakak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarriren etorbidea, 25-3.N. 48180 Lodu
T: 944 599 232
www.elekma.es

a: Cecotec

Osagaiak (lau pertsonentzat):

- 600 g legatz
- Kipula ertain bat
- Berakatzatza atal bat
- Arrautza bat



- 50 g ogi arraspatu
- Oliba-olioa, gatzatza eta perrexila
- Hamburgesarako 4 ogi
- 4 tomate-xerra
- Errukula edo letxuga
- Maionesa

Prestatzeko era:

Legatzari hezurak kenduko dizkiogu eta txiki-txiki egingo dugu. Bestalde, baratzuria, perrexila eta kipula ere txikituko ditugu, fin-fin. Zartagin batean kipula biguntzen ipiniko dugu, su motelean, harik eta ka-

Legatz-hanburgesa

ramelizatzen den arte. Baratzuria gehituko dugu eta 10 minutu gehiago izango dugu egiten. Oliba kenduko dugu. Ontzi batean nahasiko ditugu arraina, kipula, berakatzatza eta perrexila. Arrautza eta ogi arraspatua gehituko ditugu eta ondo nahasiko dugu dena, pasta homogeneoa lortu arte. Lau hanburgesa egingo ditugu eta olio apur batean frijituko ditugu. Amaitzeko, ogiak erdibanatuko ditugu eta zati baten gainean ipiniko ditugu hanburgesa, tomatea eta letxuga. Beste zatian maionesa apur bat zabaldu dezakegu, eta hamburgesaren eta barazkien gainean ipini.

Zainzuri- eta espinaka-krema

a: Karolina Grabowska (Pexels)

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 14 gari-zainzuri
- Kipula handi bat
- Porru bat
- 2 patata
- 400 g espinaka
- 500 ml ur edo barazki-salda
- 6 gaztatxo
- Gatzatza
- Piperbeltz beltza
- 50 ml oliba-olioa

Prestatzeko era:

Porruak, gari-zainzuriak (puntak gordeko ditugu) eta patatak txikituko ditugu, eta kazola batean arin frijituko ditugu olio apur batean. Gatz apur bat bota, eta su ertainean bost minutuan egingo dugu. Ondoren, espinakak gehituko ditugu eta beste bost minutuan izango dugu sutan. Gero ura edo barazki-salda gehituko dugu eta 15 minutuan egosiko dugu su bizian. Irakiten hasten denean, gatzatza eta piperbeltza botako ditugu, eta beharrekoea bada, ur gehiago bota. Gaztatxoak gehituko ditugu eta dena irabiatuko



dugu, ahalik eta krema egin arte. Bestalde, gorde ditugun zainzuri-puntak bizpahiru minutuan salteatuko ditugu oliba-olio apur batean, bizpahiru minutuan, su ertainean, eta krema apaintzeko erabiliko ditugu.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

ERREKA JAT ETXEA
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jauntxoak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA


Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

GAMINIZ JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W
www.gaminiz.com

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Jainkoaren seme (Igela), Cormac Mccarthy.
- Beirazko kanpaia (Txalaparta), Sylvia Plath. Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz.
- Uda betea (Elkar), Aritz Gorrotxategi Mujika.
- Zer jakingo duzue epela baino ezagutu ez duzuenok? (Elkar), Iñaki Irasizabal Izagirre.
- Ametsen trafikatzaila (Elkar), Andoni Urzelai Eraña

LITERATURA: GAZTEAK

- Amazonas (Ttartatolo), Angela Sangma Francis.
- Abentura bat bikingoen herrialdean (Ttartatolo), Frances Durkin. Ilustratzailea: Grace Cooke.
- Yako kokomoko (Erein), Kris Etxabe. Ilustratzailea: Paul Caballero Barturen.
- Hari ikusezina (Erein), Miriam Tirado

Sudokua

9			2	5		6		
3	5		6		8			
					1			
	2		9			7		
1	7				3			
2	9	1				8	3	
8								
	1				6		7	

2	4	9	6	8	7	1	5	3
7	1	6	9	3	5	4	8	2
3	8	5	4	2	1	6	7	9
8	5	7	2	1	9	3	4	6
9	6	3	7	5	4	2	1	8
1	2	4	3	6	8	7	9	5
5	3	1	8	4	6	9	2	7
6	7	8	1	9	2	5	3	4
4	9	7	5	2	9	8	6	1

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko one
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behean
48160 DERIO (Bizkaia)

–Especialitate guztiak
zentro bakar batean
–Aurrekontua doan
–Especialitatea:
umeak

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Hitzaldiak

Lezama

- > "Adikzioak: substantziadunak eta substantziarik gabekoak". Martxoaren 25ean, 19:00etan, Gaztelekuan. Izena ematea: martxoaren 18ra arte.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Aiora Jakaren *Nirliit* lana. Martxoaren 17an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > *Futbolariak eta printzesak* (umeentzat; Martxoak 8). Martxoaren 13an, Gurea Aretoa (3 euro).

Zamudio

- > Pelikula. Domeketan, 18:00etan, Gaztestazioan.
- > Rol jokoak antzezlan, Ana Apikaren eskutik. Martxoaren 15ean, eskolan.
- > *Araitx eta tulipa* ipuin-saioa, Alboka taldearen eskutik. Martxoaren 12an, 11etan, liburutegian (Marchinlilac kanpaina).

Larrabetzu

- > *Herrinak* antzezlan (Geuretik Sortuak egitasmoa). Martxoaren 11n, 19:00etan, Hori Bain.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Estixuren *Isilik daude harriak* diskoaren aurkezpena. Martxoaren 13an, 18:30ean.
- > Zea Mays. Martxoaren 25ean, Hori Bain.

Irteerak

Txorierrri

- > Txorierrriko bazterrak ezagutzea. Martxoaren 13an, 09:30ean, Zamudioko plazan. Izena ematea: 635 753 595. Berbalagunek antolatuta.



Zea Mays taldea Larrabetzun izango da.
a: www.zeamays.com

Lehiaketak

Lezama

- > Fifa. Martxoaren 11tik 13ra, Gaztegunean.
- > Marrazkiak. Martxoaren 25etik 27ra, Gaztegunean.

Tailerrak

Zamudio

- > Mugikorra edo tableta erabiltzen ikastea. Martxoaren eguaztenetan, 18:00etan, Adintsuen Etxean.
- > Sandwich dibertigarriak. Martxoaren 18an, 19:30ean, Gaztestazioan.
- > Mugikorrearako zorroak. Martxoaren 25ean, 19:30ean, Gaztestazioan.

Lezama

- > Eskulanak: Martxoak 8. Martxoaren 4tik 6ra, Gaztegunean.
- > Zuhaitzaren murala. Martxoaren 1etik 3ra, Ludotekan.
- > Berdintasuna. Martxoaren 4an, Ludotekan.
- > Talo. Martxoaren 11n, Ludotekan. Erretxinez egindako eskulanak. Martxoaren 21etik 25era, Ludotekan.
- > Pultserak. Martxoaren 28tik 31ra, Ludotekan.

Larrabetzu

- > Gizonak, parekidetasunerantz. Martxoaren 9an, 17:00etan, Angulerin.

Bestelakoak

Zamudio

- > Escape room: berdintasunerako bidea. Martxoaren 11n, 19:00etan, Gaztestazioan.
- > Estereotipoak hausteko jokoak, clown-arekin. Martxoaren 24an, 17:00etan, Ludotekan.
- > Marchinlilac kanpaina: lehiaketak (emakume idazleak...), gidak (neska eta mutil abenturazaleak...) eta berdintasunaren atala. Martxoan, liburutegian.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 6an, 11:00etan, Hilario Astorki plazan.
- > Zuhaitzak landatzea, sasimartxo eta umeentzako tailerrak, Guardetxearen inguruan.
- > Emakumeen Nazioarteko Eguna: Eskuak. Martxoaren 8an, Ludotekan.
- > Proba mentalak. Martxoaren 14tik 18ra, Ludotekan.
- > Aitaren Eguna. Martxoaren 18tik 20ra, Gaztegunean.

Larrabetzu

- > Aste Santuko irteeretan izena ematea. Martxoaren 14tik 25era, Anguleri kultur etxean.
- > "Gune biziak" jardunaldiak. Martxoaren 18an eta 25ean, 17:30ean, eskolako aterpean.
- > "Larrabetzun Panpa Lezkarik Ez" egitasmoa aurkeztea. Martxoaren 20an, 11:00etan, Presaondon.

**Hartz-klinika
IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hartz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aireliza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

**RADIO TAXI
FEMADE** *Zure taxi,
Teoriaz eta*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

Txorierriko BERBALAGUNAK

11 aukera euskara praktikatzeko! Herrian - kalean- lagunekin - parkean - paseoan - kafetegian

euskaraz amets



INFORMAZIOA ETA IZEN - EMATEA: 635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

LAGUNTZAILEAK:



*"Txorierriko
berbalaguna"*

ANTOLATZAILEA:



*"Txorierriko
berbalaguna"*

BABESLEA:

